



ELKARRIZKETA: V. GALLASTEGI, MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIA

Arrasate

P R E S S

2000.eko
otsailak 31
484. zenb.



**Udal
aurrekontuak
3.899.855.389 pta**

IKUSPEGIA: IKER EZPELETA • EUREN IKUSPUNTUTIK: KOLDO ZUAZO
ORAIN ETA HEMEN: SALAKETAK ELGEAN • KULTURA ELKARRIZKETA: NUMEN TALDEA

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

- LOREA ARAMBURU Dk. Instituto mediko palacio mendia. Erdiko Kale, 22-1. ☎ 943 79 72 16

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETXE A Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGOA (Bizkarreko minak eta lunbaldiak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO D.reak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ☎ 943 79 20 18

PSIKOLOGIA

- TXOMIN NÚÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46

TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

Saihesbidea, kooperatibendako?

Edo mendebaldeko saihesbidea ere deitua, denok beharrezkotzat ei dugu eta oniritzi orokorrekoa dirudi. Izan ere, une jakin batzuetan —kooperatiben sartu-irtenekin bat egiten duten unean— Arrasate baterako kristonak diren auto ilarak sortzen dira Udala plazan, horrek dakarrenekin: inguruko auzotarrak —Uribarri, Erguin, Muxibar, Munar...— kopetaraino zarataz, kez eta gainezka dagoen errepi-deaz.

Hala ere, nik entzun ditudan kexarik gehienak, eta bortitzenak, arazoa sortzen duten eta euren autoetan bakarrik joaten tematzen diren kooperatibistengandik datoz.

Honen aurrean instituzioek betiko lelora jo dute oraingotan ere: beste errepide bat, Olandixoko tunela barne duena eta Fagorrek Garagartzan duen lantokiko



Iker Ezpeleta

Gero eta jende gutxiagori bururatzen zaio oinez edo bizikletaz joatea

aparkalekua handitzea.

Noski, errepide egitearen 1200 milioiak denon artean ordaindu beharko ditugu; azken aldian diru publikoa poltsiko pribatutara pasatzeko erarik azkarrena eta ugariena.

Hori gutxi balitz, badira aurreikuspen beltz batzuk ere:

Garagartzako Fagorrek langileak bikoizteko asmoa dago, Eskola Politeknikoan 3000tik 5000 ikaslera pasatzekoa, Olandixon industrigune berria egiten hasi dira, Amat ere handitzekotan dira eta gero eta gehiago bultzatzen da lanera joateko autoa erabiltzea, kooperatibako autobusa hutsik joan arren; gero eta jende gutxiagori bururatzen zaio oinez edo bizikletaz joatea (gauzak dauden bezala, eta kontuan izanda kaletik Garagartzara asko jota, kilometro pare bat dagoela, biak dira azkarra-

goak, merkeagoak, lasaiagoak eta osasuntsuagoak, azken finean).

Gauzak horrela, trafikoa bikoiztu egingo dela ikusten da, gutxienez epe motzera. Bestalde, udalak eginiko ikerketa batek dioenez, trafikoaren erdia, asko jota, pasako ei da tunel horretatik. Ez dago matematikaria izan beharrik Udala plazako arazoa horrela ez dela konponduko jabetzeko.

Beraz, eta gaur egun zentzuzko ideiak —arazoaren muinera (autora) jotzea— zeharo baztertuak daudenez, eta alternatiba eraikitzaileak ematera behartuta gaudenez, horra hor nirea:

Olandixon hiru tunel behintzat, epe motz nahiz ertainerako balio izango luketenak, Takolotik aurrera lau karrileko astopista, Udalaiz azpitik —kontuz, ez ezazue abiadura handiko trenarekin estropozurik egin— saihesbide bat Elorrixora eta Udalan zehar beste bat Bergara aldera.

Epe luzera, eta Maltzaga-Urbina gainezka dagoenean, nik uste dut Urbia inguruan geratuko dela urbanizaturik gabeko zelairen bat, aireportua egiteko. Animo!

“Bailaran azpiegiturak ez dira industriaren garapenaren proportzio berean sortu. Gabezia gogorrek dauzkagu”.

Victoriano Gallastegi



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otlora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarria. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantza-zu Lagunilla, Arantza Arriola. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Arantza Loidi. **Administratzailea:** Agurtzane Gaiñarain, Maite Urriolabertia (Tel.: 943 71 23 90). **Diselina:** Maddi Truxuelo. **Aste-buruetako berriemakilea:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Inzar, Udaleko Gazteria Saila, Karmelo Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal, Iker Ezpeleta. **Banaketaren arduraduna:** Jacine Mendizabal-ABD. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldirikaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Truxuelo.



Arrasateko Udaleraren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailearen laguntza

165

ibilgailu jaso ditu
Arrasateko garabiak
azaroan lanean hasi
zenetik.

Beraz, zatiketa eginez gero, hilean 50-60 ibilgailu inguru eraman du. Orain arte erdiguneari aritu da, baina laster auzoetara ere zabalduko da zerbitzua. Lehenik, Zigorrolan hasiko da.

ITURRI ONETIK

Dotore dotore

Joan den astelehenean Astore etxean izan ziren Asegarge enpresako pilotariak jantzi berriak probatzen. 34 pilotari egon ziren, Unanue, ez baitzen etorri aita izan dela eta.

Pilotari guztiak gustura alde egin omen zuten. Jakin dugunez, txandalaren prakak gustatu omen zitzaizkien gehien: txurak, inongo markarik barik eta gizona zkoen betiko prakak marrekin. Pilotan egiteko ere dotore jantzi behar!

Praka motzak probatzeko Errealaren prakak erabili omen zituzten bat baino gehiagoren kezurako. Nagorek, ordea, bakea ipini zuen (bere anaia Athleticak lagata Numantzia ari den arren).

ADI ARRASATEARROKI!

Kontuz darabilzuen euskalki basati eta maila eskaxekoarekin, ikas ezazue behingoz herri komunikabideetan (batez ere ahozkoetan) aurkezten diguten euskara zuzena eta garbia, zuzena, lauzpabost bustidura zakar, aditz trakets eta bizkaiera kutsu susmagarriduna, ez baita teleberrietan kontuan edukitzeko. Zatozte harrapaladan barbaroak, zatozte eta besarka ezazue Euskalerrian hedaturik dagoen euskara estandar sakrosantua, hil eta lurpera ezazue zuen euskalki hori eta egizue lehenbailehen, orain ez bada, laster galduko baita. Hiltzear dagoen animalien sufrimendua kolpe batez arintzen den legez, aka dezagun gurea eta gure arbasoen ondarea izan den euskalkia, etorbedi gaur eta aguro mass-mediaren indar bateratzailea.

Zuek, gazteok, kalean darabilzuen eta bizi duzuen euskara nahasiaz ez daukazue kezkatu beharrik, herriko telebistan kaleko euskara berba egiteko eredu zuzena topatuko baituzue.

Eta zuek, Arrasateko aitona-amonok, esker ona erakutsi beharko zenukete herriak euskara bateratua ikasteko aukera eskaintzen dizuetelako eta azken finean XXI. mendean jarri zaituztetelako.

Erre itzazue azken aldian euskalki barbaroak bultzatzen dituzten argitaratutako liburuak (Arrasateko euskara) eta behin betirako ahaz itzazue kimera guztiak. Etorbizuna hemen da gurekin, Debagoiena duzue; baina argi ibili euskalkiaren alde egingo duten atxabaltar, bergarar, oñatiar, aramaioar, eskoriatzar eta gairontzeko herritarrekin. Ez etsi, garaipena gurea izango baita!

P.D.: Barkatu oraindik nire hiztegitik herbesteratu barik dauden hitzak erabiltzeagatik. ATBko 5 teleberri gehiagorekin sendatuko naizelakoan nago. Zin dagit.

G.E.A.

EUSKALDUNOK INKOMUNIKATURIK? HEDABIDEAK EUSKARAZ!

Egungo gizartean, komunikazioa, lehen mailako garrantzia duen alorra bilakatu da. Zeresanik ez hizkuntzen egoera aztertu behar dugunean. Hizkuntz-komunitatearen artikulazioan esparru komunikatibo propioa izatea ezinbestekoa da herri baten zatitza, hizkuntza baten zatitza. Euskaldunok pairatzen dugun hizkuntza zapalkuntzak maila gorena hartzen du hedabide

alorrean. Euskaltzaleok sekulako lana egin behar izan dugu herri ekimenetik komunikabide euskaldunak eraikitzeko (egunkaria, aldizkariak, irratia...) eta administrazioa behartzeko (ETB I kasu). Baina, aski ez dela nabarmena da. Mundu mailako fenomeno gurea ere iritsi da, eta hala prentsa idatzian nola irrati eta telebistetan, erdal hizkuntzetakoak kopuru erraldoietan biderkatzen ari diren bezala, euskaldunok nahikoa lan dugu gutxienezko sare bati eusten.

Komunikabideak, alta, ez dira herriatik atoka daitezkeen egiturak. Herritarren eta herriaren eskubideei kasu egin behar diete. Eta hizkuntza eskubideei ere bai. Euskaldunok informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea dugu. Eta gaur egun hedabide gehienek eskubide hori urratzen dute, administrazioaren onespenerekin, eta euskaraz bizi nahi dugunok inkomunikazio egoerara kondenatzen gaituzte.

Inkomunikazio hori hautsi egin behar dugu. Hedabideak euskaraz aritu behar dira Euskal Herrian komunikatu nahi badute. Euskaldunon eskubideak aldarrikatu behar ditugu. Administrazioak eta hedabideek errealitate hori kontuan izanik jokatu behar dute, eta administrazioak badu horretarako nahikoa esku-duntza (baimenak, dirulaguntzak, ...). Euskaldunok hautsi egin behar dugu gure inkomunikazioa. Hedabideak euskaraz orain!

Euskal Herrian Euskaraz

Biktima zordun?

Herrialde txirotuen Kanpo Zorraren jatorrian dauden maileguetariko asko eta asko herriaren borondatek kanpo kokatzen ziren gobernu eta enpresa pribatuek hartu zituzten. Maileguak ez ziren gehiengoaren interesak bultzatzeko hartu, gutxiengoaren botere egarria asetzeko baizik. Sasi-agintariek presa handiz maileguetako dirua iparraldeko bankuetako kontu pribatuetan gordetzen zuten edo eta luxuzko bizi-modua eramateko erabiltzen zuten edo eta oraindik ere okerrago, iparraldeari armak erosi eta herri mugimenduak errukirik gabe zapaltzeko erabili zuten.

Orain diktadura eta errepresioa jasan zuten biztanleek diktadore haiei laguntzeko Iparraldeko estatu eta bankuek luzatutako maileguak itzuli behar ote dituzte?

Noizdanik ordaindu behar ditu morroiak bere nagusi zapaltzailearen zorrak?

*Kanpo Zorra
Ezabatzeko Bilkura*

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 18
 - Amezua, Santa Marina
- Larunbata, 19
 - Zabala, Zarugalde
- Igandea, 20
 - Ruiz, Maalako Errabala
- Astlehena, 21
 - Morales, San Andres
- Asteartea, 22
 - Azkoaga, Ferrerías
- Asteazkena, 23
 - Azkoaga, Iturriotz
- Osteguna, 24
 - Korkuera, Musakola

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M

MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Austriakoa bezalako alderdiak kontrolatu behar dira?

Europako alderdi sozialdemokratek ez zuten begi onez ikusi Haider Austriako gobernuan egotea



Edurne Landaluze
(38 urte)
Langilea

Zaila da esaten, aldeko jendea dagoen bitartean. Neurriak, eurak neurrian ibili daitezzen hartu beharko lirateke.



Patxi Oregi
(30 urte)
Langilea

Daukan arazo bakarrea eskumakoei botoak kentzea da. Hemengoek musua garbitzen dute zentrokoak direla esanez.



Maria Teresa Herrera
(57 urte)
Etxekoandrea

Nire ustez bai, ez dakit zein, baina bai. Arrazakeriaren inguruko gaietan beti dago neurriak hartu beharra.




Jose Manuel Mertxan
(25 urte)
Langilea

Bai, horiek bere kabuz lagaz gero, edozer gauza gerta daiteke.



Clemente Delgado
(25 urte)
Langabetua

Ez nator eurekin bat, baina demokrazian, jendeari bere ideiak izaten laga behar zaio. Zaila da oso; baina ez dut uste arrakasta handirik izango dutenik.



Luciano Talledo
(53 urte)
Erretiraturia

Nire ustez kontrolatu egin beharko litzateke, bestela dena neurritz kanpo egongo litzateke.



Pilar Ramirez de Alda
(49 urte)
Langilea

Nire ustez zerbait egin beharko litzateke eskuindarren aurka.



Ana Maite Iriarte
(42 urte)
Langilea.

Demokraziaren legeak eta mugak errespetatzen badituzte legezko alderdiak dira. Ilegalizatuta ez da ezer konponetzen, gaia ezkutatzeari bakarrik.

Sagardotegia Txotx egin!

ITURROIETA

Arraga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

Edertu
Ile apaindegia • Solariuma

Berritu zure itxura!

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

18 ostirala

■ ZINEA

Goya en Burdeos, 19:00 eta 22:00etan, Alai zineman.

■ KARTEL LEHIAKETA

Gaur da martxoaren 8ko Kartel Lehiaketarako lanak aurkezteko azken eguna. Arrasateko Emakume Sailera eraman behar dira lanak. Argibideak, 943 79 09 00 telefonoan.

19 larunbatá

■ ZINEA

Sleepy Hollow, 17:00, 19:30 eta 22:00etan, Alai zineman.

■ LUDOTEKA IBILTARIA ERGUINEN

Erguin auzoan izango da Txatxilipurdiren Ludoteka Ibiltaria. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza bitarteko umeei zuzenduta dago. 11:00-13:00.

■ AUTO KARABANA LANGRAITZERA

Langraitzera auto karabana antolatu du Gazte Ekimena. Ekintza honekin, zigorraren hiru laurdenak bete dituzten presoak kaleratzea eskatuko da. Arbolapetatik irtengo da, 10:30etan.

■ LA POLLA ETA NON DEMONTREREN KONTZERTUA

La Pollak bere lan berria aurkeztuko du Bergarako Jam aretoan. Non Demontre taldeak ere joko du. Sarrerak 1.500 pezetan, 1.200 alde aurreko salmentan. Gaueko 22:00etan.

20 igandea

■ ZINEA

Sleepy Hollow, 17:00, 19:30 eta 22:00etan, Alai zineman.

■ ANTZERKIA GO-JAMEN

Mua Antzerki taldeak *Thelma y Louise* lana aurkeztuko du Bergarako Go-Jamen, Jam aretoaren bigarren solairuan. Sarrerak 400 pezetan, 21:30etan.

■ UDALPEREN MEZA

Udalpe elkarteak Meza izango du hildako bazkideen alde. San Juan Bataiatzailearen Elizan, goizeko 11:00etan.

21 astelehena

23 asteazkena

■ ZINEA

Sleepy Hollow, 19:00 eta 21:30etan, Alai zineman.

■ UDALPEREN BATZARRA

Udalpe Elkarteak ohiko Batzar Nagusia egingo du, elkartearen egoitzan, 19:00etan.

22 asteartea

■ ZINEA

Sleepy Hollow, 19:00 eta 21:30etan, Alai zineman.

■ SOLASALDIA

Añanan egin nahi duten zentral eolikoaren inguruan lanean ari den taldeko ordezkari bat eta Elgeako zentral eolikoan lanean diren ordezkariak arituko dira zentral eolikoetaz Monterronen. 19:00.

Zaborrak ikusgai



Zaborraren problematika aztertzen duen kanpainaren barruan, "bitxia" erakusketa eskaintzen dute U...

24

osteguna

■ ZINEA AMAIAN

Neil Labute zuzendariaren *Amigos y Vecinos* filma eskainiko da Amaia antzokian, Udaleko Kultura Sailaren eskutik. Sarrerak 450 pezetan, 400 Gazte Txartelarekin. 21:30.

■ NIKARAGUAKO BERRIAK

Ibon Antero Aretxabale-tako Hiruatx Hirugarren Mundu taldeko kidea Nikaraguan izan da, Mitch hurakanaren ondorengo etxe-erakuntzan lanean, eta bertako kontuen berri emango du bideo eta diapositiba emanaldi batean. Aretxabale-tako Loramendi-ko aretoan, 19:30.

■ MOTORZALEEN MARRAZKI LEHIAKETA

XI. Motorren Kontzentrazioa dela eta, marrazki lehiaketa antolatu du Arrasateko Motorzale Elkarteak. DIN-A4 neurriko paperean, zuri-beltzean izan beharko dira, astoaren eta motorraren irudiarekin. Motorzaleen egoitzan, martxoaren 18ra arte.

■ EMAKUME SAILAREN LAGUNTZAK

Urtero moduan, Emakume Elkarteek zuzendutako dirulaguntzak eskainiko ditu Udaleko Emakume Sailak. Hilaren 25ean amaitzen da eskaerak aurkezteko epea.

■ INTSUMISOEN AFARIA

Martxoaren 11n sagardotegi batean afaria egingo dute intsumisoei. Intsumiso guztiak zaudete gonbidatuta. Izena emateko, deitu Iñigo Irasuegiri, 943 79 90 59 telefonoan.

■ FRONTENIS TXAPELKETA

Debagoieneko pilotalekuan frontenisean aritzen diren guztientzat frontenis txapelketa antolatu dute AKEK, Aukeak eta Mankomunitateak. Otsailaren 23an amaitzen da izena emateko epea.

■ GAZTE INFORMAZIO GUNEA KARTEL LEHIAKETA

Gazte Informazio Gunea iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du Bergarako Udalak. Bergaran bizi, lan edo ikasten duten 15-26 urteko gazteei dago zuzendua. Martxoaren 11 da lanak aurkezteko azken eguna.

■ AMUSKAREN EGITARAUA

Martxoaren lehen egunetarako hainbat ekintza antolatu ditu Eskoriatzako Amuska Emakume Elkarteak. Hilaren 6an, emakumeei buruzko zine foruma, hitzaldia eta mokadua eskainiko du. Eta hilaren 11n, afaria eta dantzaldia.

■ ARTE PLASTIKOEN LEHIAKETA

Gure-Leku tabernak antolatu duen Espacio Libre Tecnica arte plastikoaren lehiaketara aurkezteko otsailaren 26ra arteko epea dago. Gaia, teknika eta materialak libreak izango dira.

■ GOELLOREN ERAKUSKETA

Zabalik dirau Peio Gonzalez Goelloren *Esos Otros Paisajes* margo erakusketak. Margolari hernaniar honek bere kabuz ikasi zuen margotzen eta hau da bere lehendabiziko erakusketa Arrasaten, San Andreseko Toki-Eder kafetegian.

■ BI KINTO-BAZKARI MARTXOAREN 4AN

51ko kintoek, 1930ean jaiotakoek, kinto bazkaria izango dute datorren hilaren 4an. San Juan Bataiatzailearen parrokian meza izango dute, 12:30etan, eta txikiteoa ondoren. 14:30etan bazkaria izango dute Musakolako Hostalean. Izena emateko edo argibide gehiagotarako, deitu Juan Jose Uribarreni, 943 79 80 08. Egun horretan bertan beste kinto bilera bat izango da, 1946koena hain zuzen. Hauek ere meza eta Mondragon Hotelean bazkaria izango dute.

Interesatuok deitu Santos Zeziagari, 943 79 23 73.

■ DANTZA IKASTAROK

Bi dantza ikastaro antolatu ditu Udaleko Gazte Zerbitzuak. Batetik, karibeko dantza ikastaroa, otsailaren 28tik aurrera, Musakolako Gazte Txokotan. Eta martxoaren 3tik aurrera, euskal dantza ikastaroak, Lore Gazteak taldearen egoitzan.

■ GOI MENDI IKASTAROA

Hastapena eta Segurtasuna Goi mendian izeneko ikastaroa antolatu du Gazte Zerbitzuak, Gipuzkoako Goi Mendi Eskolaren eskutik. Tena bailaran izango da ikastaroa. Martxoaren 1a baino lehenago eman izena.

erronen



lako Ingurugiro Eskolak eta Mankomunitateak. Monterronen, otsailaren 20ra arte.

USTEAK USTE

*Zaleak bai,
ez besterik!*

Joan den asteburuan Erralak berriz galdu zuen. Vigon izan zen, 0 eta 1 irabazten hasi ondoren. Tartean epaileak Aitor Lopez Rekarte "Bonba" kalera bidali zuen. Eta badirudi txuri-urdinek ezin izan zutela hamarrek Celtaren aurka egin. Baina larriena ez da hori, edo Errealaren sailkapeneko egoera. Futbol zelaitik kanpo gertatzen dena da larriena. Futbola, dirudienez, ez da zelai batean 90 minututan zehar gertatzen dena. Joan den astelehenean, Zubietako horman agertu ziren pintadek hori adierazten dute. "Aitor Cancer" idatzi zuen norbaitek. Badirudi norbait horrek Errealak galdu izanaren errua Aitorri egotzi nahi izan zuela. Horrelako jarrerak arazo ugari eragin dute futbolean. Askok eta askok neurririk gabeko jarrerak azaltzen dituzte igandero horrenbeste jende mugitzen duen kirol honekiko. Baina kontuan izan behar duguna zera da: taldeek zaleen beharra daukate eta kasu honetan, Errealak ere bere zaleen beharra dauka. Etsaia, aurkaria gure kasuan, igandero aurrez aurre izaten duten taldea da. Besterik ez dugu behar.

Marijo Deogracias



Balixo ete dabe euskalkixak ezertarako?

* Koldo Zuazo

Aspaldi ez dala, galdera hauxe egin eustan adiskide batek: zer gertatuko litzateke euskalkixak betiko galduko balira eta danok batuan berba egingo bagendu? Galduko ete leuke euskeriak ezer?

Azaletik begiratuta, badirudi bardintsua dala domekia zein igandia esan, edo "jausi jako" zein "erori zai" esan. Ez dirudi bata zein bestia esan alde haundirik dagoenik. Gauzak horrela ikusita, ez dau emoten euskalkixak galtziak ezelako hondamendirik ekarriko leukenik.

Baina gauzak sakonago aztertzen baditugu, euskalkixak geure hizkuntza sena dirala ikusiko dogu. Eta zer da sena? Sena da entzuten edo irakurtzen doguna zuzena ala okerra dan, egokixa ala desegokixa dan esaten deuskuna. Hori alde batetik eta, bestetik, barriz, sena gauza barrixak sortzeko gaitasuna be bada.

Deba ibarreko euskeria aztertzen hasi nintzenian, esate baterako, ter-

minologixa kontu batekin topo egin neban: Debagaraia eta Deba beheara esaten zan, eta nire senak horreik ez zirala berba zuzenak esaten eustan. Eibarren, neure senide eta lagunekin berbetan jardungo baneu, ez neukela horrela esango konturatu nintzan. Ume-umetatik etxera sartu aurretik oinetako zikinak pasillo barrenian egozan apaletan itxi bihar nituala esaten eustan amak. Eta pasillo barrenian esaten eban berak, ez pasillo behean. Ume-umetatik entzun izan ditut, gainera, praka barrenak, landa barrena, solo barrena... eta gure herrixetako kalien izenak be Goienkale eta Barren-

kale izan ohi dira. Sekula santan ez ditut entzun nik praka beheara, landa beheara, kale beheara edo kale garaia. Zer dala-eta, orduan, Deba-beheara eta Debagaraia?

Berbetia ume-umetatik ikasi dabenak dauka sena, eta euskalkixak galtzen badira, sena be galdu egingo da. Eta sena galtzen bada, berbetia bera be lehentxuago edo gerotxuago galdu egingo da. Senik ez daukanarendako bardin da Deba beheara zein Debabarrena esan.

Sena daukanak berba eta esamolde barrixak asmatzeko, hitz jokuak sortzeko gaitasuna be izango dau. Senik ez daukanak, ostera, dakixena errepikatu besterik ez dau egingo. Lorituak errepikatuko dau, berak ezer barririk sekula sortu ezinik.

Horixe da, azken baten, sena galtziak dakarrena. Horixe euskalkixak galduz gero gertatuko jakuna. Balixo dabe ala ez, orduan, euskalkixak ezertarako?

“
Sena da entzuten
edo irakurtzen doguna
zuzena ala okerra dan
esaten deuskuna.
”

* Euskal Filologoa eta EHUko irakaslea

Pando
ERROTULOAK
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabilioia)
Tel. / Faxe: 943 79 79 70

ML
ILE APAINDEGIA
Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

HIES
EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiraletan
Setatik Setara.
Tel.: 943 79 26 99



ALTZARIAK *eta* OPORRAK



alitatezko egurrez egindako gazteentzako altzariei dagokionez, azken berrikuntza aurkezten dizuegu.

“Milenium”

modeluko altzari taldea erositara, astebukaera edurretan pasatzera gonbidatzen zaitugu.

Orainxe bertan erosi eta 6. hilabetetik aurrera hasiko zara ordaintzen.

24 hilabetetan interesik gabe.


TODO Mueble Kabia

Gipuzkoa Etorbidea, 28
Tel. 943 79 27 70 - ARRASATE

OÑATI

1 Ingurugiro Astea

Hurrengo aste osoan zehar egingo du Olakuako Natur Eskolak Oñatiko Ingurugiro Astea 2000, eta egitarau erakargarria prestatu dute Natur Eskolako arduradunek. Aste honen helburua Natur Eskolaren ekintzak eta lorpenak herri osoari zabaltzea da, eta urtean zehar egitasmoak ikasleei zuzenduta badaude, oraingoan herritar guztiek izango dute parte hartzeko modua. Laugarren urtez antolatzen da Ingurugiro Astea, aurreko urteotan izandako erantzunarekin pozik baitaude Natur Eskolako arduradunak. Beraz, hila- ren 21etik 27ra egunero izango da ekintzaren bat: hitzaldiak, diapositiba emanaldiak eta zine kluba, besteak beste. Larunbatean, Mendixur parke ornitologikora irteera izango da, eta igandean, Duru- Mallan Zuhaitz Eguna ospatuko da. Eta berrikuntza moduan, aste osoan zehar Juan Varelaren erakusketa izango da, Olakua Dorretxean. Bere argitalpenengatik eta Felix Rodriguez de la Fuenterekin lan egiteagatik ezaguna da biologo eta marrazkilaria hau.



BERGARA

2 Zuhaitz landaketa

Amaitzear dago Bergaran naturarekin oso lotua egon den beste programa bat. Bihar bukatuko da, hain zuzen, Udalaren Ingurugiro Sailak anto-

latu duen Zuhaitz Astea. Hila- ren 12tik hasita, ingurunea hobeto ezagutzeko eta zain- tzen ikasteko hamaika ekintza ospatu da Bergaran, hitzal- diak, ibilbideak eta landare azoka, adibidez, Lehen Hez- kuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoei

zuzenduak. Azken ekintza moduan, zuhaitz landaketa izango da bihar, San Mar- tzialen. Aste honetan landu diren edukien laburpen moduan, Bergaran eta ingu- ruetan nagusi diren zuhaitz motak erakusten dituen Gida kaleratuko du Ingurugiro Sai- lak. Oraingoan, 2.500 ale pres- tatu ditu, eta Bergarako ikas- tetxeetan banatuko dira.

ESKORIATZA

3 Literaturaz berbetan

Literaturaren astea ospatu dute Eskoriatzan. Irakasle Esko- lak antolatu du, HUENeko 1., 2. eta Egokitze mailako ikas- leei zuzendua. Gonbidatu eta gai bati eskaini zaio egun bakoitza, astelehenetik oste- gunera. Aitzpea Azkorbebi- tiak ekin zion egitarauari, Jose- ba Sarrionandia idazlearen inguruko hitzaldi batekin. Asteartean, Koldo Izagirrek kartzela gaiari buruz hitzegin zuen, eta gai hori tabua barik, literaturan oso aproposa dela adierazi zuen. Itzulpenari buruz aritu zen Mikel Gar- mendia. Azkenik, Asier Serra- nok literaturaren eta musika- ren arteko harremanen azter- keta egin zuen.

Hilbera
kafetegia
Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

"PAL"
burdindegia,
brikolage
eta tresneria
Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

UGARTE
Industria
hornidurak
Arrasate pasealekua
Tel.: 943 -79 83 96 / 943 - 79 23 00
Faxa: 943 - 793412

Plus Ultra
taberna
Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57

Lore
• Lurrindegia • Kabina •
• Fotodepilazioa •
Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

MARKO-JARTZEAK
ALDEDI
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

astea bi hitzetan

■ **Trafiko istripuekin kontuz**

Nagusien bide segurtasuna hobetzeko hitzaldi sorta eskaintzen ari dira Kutxa eta Eusko Jaurlaritzak. Pasa den asteazkenean Uribarriko Gizarte Etxean aritu ziren.

Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Saileko aditu batek eta mediku batek bidean nola jokatu behar den adierazi zien Uribarriko pertsona nagusiei. Bideoen eta adibideen bitartez, eta nagusien parte hartzea galderen eta elkarrizketen bidez bultzatuz landu zituzten bi adituek bidean errespetatu beharreko arauak.

■ **Abokatu euskaldunak**

Euskaraz deklaratzeko eskubidea bultzatzen ari da Gipuzkoako Abokatuen Euskara Batzardea. "Eskatu ofizioko abokatu euskalduna. Zure eskubidea da" leloarekin, informazio kanpaina bat jarri du abian. Gipuzkoako komisaria eta epaitegi guztietara gutunak eta txartelak bidali dituzte. Arrasaten jaso dute

bai Udaltzaingoak eta baita Ertzaintzak ere eta Bergarako epaitegira ere heldu da. Gutunean, atxilotuei euskaraz deklaratzeko eskubidea dutela esatea eskatu du abokatuen elkarteak.

Kanpaina honen barruan, bi zerbitzu indartu nahi dira. Alde batetik, euskarazko ofizioko abokatuen txandak, eta bestetik, atxilotuen urgazpeneko txandak. Gipuzkoako Abokatuen Euskara Batzardeak adierazitakoaren arabera, 100 abokatutik gora daude txanda bakoitzean, hainbat arrasatear tartean.

■ **Proiektuen kudeaketa MUN**

Proiektuen kudeaketa hobetzeko moduak eskaintzeko asmoz, Mondragon Unibertsitateak ikastaro aurreratu bat antolatu du. Zuzendariei, departamentuetako buruei, komertzialei eta teknikariei zuzenduta dago, batik bat.

Arloka sailkatuko dira ikastaroan emango diren moduluek eta hainbat espa-

rru landuko dira: bezeroekin harremanak nola landu, negoziatzen ikasteko teknikak, proiektuen kudeaketa ekonomiko finantzieroa, proiektu baten faseen kudeaketa, besteak beste. Asteartean bukatu da matrikulazio epea eta datorren hilaren 29an hasiko da ikastaroa. 110 orduko iraupena izango du.

■ **Batera**

Hamabostero ohi denez, Batera elkarteak kale bilkura egin zuen ostiral arratsaldean. Gazte Ekimenak deituta, Lizarra-Garaziko hitzarmena sinatu zuten alderdien ordezkariak, hainbat sindikatu eta agente sozial bildu ziren herriko plazan. "Presoen eskubideen alde" leloa erabiliz, euskal presoen Euskal Herriratzea, gaixorik dauden presoak kaleratzea eta zigorraren hiru laurdenak bete dituztenak aske uztea dira hamabosteroko bilkura hauen aldarrikapenak. Irailen hasi ziren Batera bilkura hauek egiten eta aurrera segitzeko asmoa dute.

“ Gure inguruan, Arrasate aldean, bizkaieraz egiten dugu baina elizak azken hamarkadetan gipuzkeraz egin du bere jarduera. Horrek badu eragina. Horrez gain, ez dugu kontuan hartzen, herri aldizkari bitartez —beste gantxo batzuk dauzkatalako— jende asko ari dela alfabetatzen euskara batuan. Beste maila bateko alfabetatzea izango da, baina ari da... ”

Guk (*Arrasate Pressen*) batua erabiltzen dugu hasieratik, baina joera desberdinak ere izan dira. Euskalkia erabili izan denean, prestijioa emateko izan da, baina une honetan ez da erabiltzen. Gu euskara batua eta ona erabiltzen saiatzen gara. Baina zenbait gauza gurean ez dugu onartzen, adibidez, *heinean* beharrean *neurrian* erabiliko dugu, *kanpo*, *at* beharrean, eta *abar*. Kazetari gazteak halako euskararekin etortzen dira.

JOXE ARANZABAL
Larrun
(2000.1)



■ **Emakumeentzat diru laguntzak**


Arrasateko emakume taldeek hilaren 25era arteko epea dute udalean diru laguntzak eskartzeko. Iazko ekintzen memoria eta aurtengo iharduera eta aurrekontua aurkeztu behar dira horretarako. Hauek aztertu ondoren, udaleko Emakume Batzardeak laguntzak banatuko ditu.




ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



EAren Hiri Batzorde Eragile berria



Jose Migel Salaberri. Presidentea.



Iñaki Ayerbe. Idazkaria.



Jose Mari Menika. Diruzaina.

Arrasateko Eusko Alkartasunak Hiri Batzorde berria eratu zuen pasa den urtarrian. Datozen hiru urteotarako aukeratu da talde berria.

11 pertsonaz dago osatua. Hauetatik sei, orain arteko lan taldeko pertsona berak dira, beste bostak berriak. Euskal Herriko EAko Batzorde Nagusiaren oinarriak edo politika Arrasaten bideratzea da Hiri Batzorde Eragilearen lana.

Jose Miguel Salaberri izendatu dute presidente eta Jose Mari Menika diruzain. Iñaki

Aierbe da idazkari berria eta Juan Antonio Barriocanal, udal zinegotzien ordezkaria. Aritz Larrañaga, bestalde, hauteskundeetaz arduratuko da, Eguzkiñe Landaluzek pertsona nagusiekin izan beharreko harremanak bideratuko ditu eta Nikolas Iriarte gazteekin arituko da. Bestalde, Jasone Giraldo, Euskara eta Kultura idazkaria izango da, Ainhoa Menika komunikabideez arduratuko da eta Igor Altuna arlo instituzionalaz. Bukatzeko, Jose Andres Ugaldek alder-

diaren eta Amaiur elkartearen arteko harremanak bideratuko ditu.

Lan taldea astero bilduko da, herriak dituen beharrak aztertu eta zinegotzien bitartez udalean bideratzeko.

POSTA BIDEKO BOTOA

Posta bidez botoa eman nahi duena, berriz, Alkartetxera joan daiteke.

Horretarako ordutegi bat ipini du alderdiak: egunero arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara.

Ibai-Artek zuzendaritza berria

Ibai-Arte merkatarien elkar-teak batzar orokorra izan zuen asteazkenean.

Bi urtetik behin egiten duen moduan, zuzendaritza erdi aldatu egin du. Hiru presidentetik bi joan egin dira, Begoña Barreiros eta Marce Gonzalez, hain zuzen ere. Yolanda Sanchez idazkariak ere utzi egin du kargua eta baita Pilar Martinez de Ubago diruzainak ere. Horrez gain, Rakel Alonso eta Gonzalo Etxebarria bokalei ere kargua uzteko ordua iritsi zaie. Hauen orde, honako hauek sartu dira: Koldo Zubizarreta Ehuneko, Kristina Arriaran

Beinkekoa, Jon Garagorri Garagorri Optikakoa, Mariasun Arizaga Oihana Lora-dendakoa, Marisol Iriarte Kilikolokoa eta Mari Carmen Velez de Mendizabal Artea Enmarkazioak dendakoa.

Oraindik banatu barik daude pertsona hauek egingo dituzten lanak. Pare bat aste barru egingo da hori.

1.999. urteko balantzea ere egin zen asteazkeneko batzarrean. Balorazio positiboa egin zuen elkar-teak. Era berean, datorren urtera begira orain arteko ekitaldi berak egitea erabaki zen eta baita berriak egingo aukera aztertzea ere.

Hautemahaietarako aukeraketa

Martxoko hauteskunde orokorretarako hautesmahaiak asteartean aukeratu ziren osoko bilkura berezian.

Bost distrito edo kokagune zehaztu dira datorren martxoaren 12an mondragoetarrek botoa eman dezaten: Ferixalekua, Musakola, Santamaina, Uribarri, San Andres eta baserri auzoetan, Udala, Uribarri, Garagartza eta Gesalibar.

Guztira 30 mahai ipiniko dira kokaguneetan eta mahai bakoitzerako 9 pertsona izendatu beharra dago. Beraz, guztira, 270 pertsona izendatu ziren astearteko batzarrean.

Mahai bakoitzean presidente bat eta bi bokal izango dira. Era berean, bakoitzarentzat bina ordezkari aukeratu dira.

SISTEMA BERRIA

Lehenengo aldia izan da aukeraketa hau osoko bilkura bitartez egin dena. Horretarako, aukeraketa egiten duen sistema informatiko berri bat erabili zen. Zozketa honen barruan ez dira sartu 65 urte edo gehiagoko pertsonak, ezta irakurtzen eta idazten ez dakitenak ere. Izan ere, bokala izateko irakurtzen eta idazten jakin beharra dago eta presidente izateko, berriz, eskola graduatua izatea eskatzen da.

Izendatu diren pertsonei etxera bidaliko zaie abisua udaltzainen bitartez. Norbait joan ezina balu, abisua jaso eta 7 egun baino lehen azaldu beharko du ezinaren zergatia Bergarako Epaitegian. Horretarako behar diren eskatera orriak udaletxean bertan jaso daitezke.

20.314 herritar daude martxoaren 12ko hauteskundeetarako botoa ematera deituta.

Arkauz berriz auzitara

Josu Arkauz preso politiko-mondragoetarrak beste epaiketa bati egin beharko dio aurre.

Baltasar Garzon epaileak, Jose Barrionuevoren aurka bonba-eskutitz bat bidali izana egotzi dio.

Estatuko fiskalak iaz eskatu zuen Josu prozesatzea, dirudenez, Barrionuevori bidalitako eskutitza idazteko erabili zen makina Arkauzen Biarritzeko etxean aurkitu zutelako. Arkauzek, ordea, salaketa hau ukatu egin du goitiki behera.

Euskal dantzak

Hamar urtetik gorakoei zuzendua


- **Iraupena:** Martxoaren 3tik ekainaren 16 arte
- **Ikastaro egunak:** Ostiraleko (21 ordu)
- **Ordutegia:** 19:00 - 20:30.
- **Matrikula:** 1.000 PTA.
- **Tokia:** Lore Gazteak-en egoitzan.
- **Irakasleak:** Lore Gazteak taldekoak.

Gazte ikastaroak

Izena emateko Gazte bulegoan, 943 77 00 65 telefonoan

Hastapen eta sakontze maila

- **Iraupena:** Otsailaren 28tik apirilaren 12 arte
- **Ikastaro egunak:** Astelehen eta asteazkenetan (21 ordu)
- **Ordutegia:** Hastapen maila: 19:30 - 21:00
Sakontze maila: 21:00 - 22:30
- **Matrikula:** 4.000 PTA.
2.500 PTA. (ikasle eta langabeentzat)
- **Tokia:** Musakolako Gazte txokoan
- **Irakaslea:** Julio Lantigua



ARRASATEKO
UDALA

Gazteria Saila ■

Karibeko dantzak

Elgeako zentral eolikoaren proiektua aldatuta

Eolicas de Euskadi enpresak Elgeako zentral eolikoaren proiektua aldatu egin du.

Abendu bukaera aldean jakinarazi zen aldaketa Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean. Aldiz, pasa den astera arte ez zen horri buruz ezer jakinarazi, ez Gipuzkoako Jarraipen Batzordean ezta Arabakoan ere.

Halaxe salatu du Gipuzkoako Jarraipen Batzordeak. Pedro Lasagabaster teknikariak jakinarazi duenaren arabera, pasa den ostiralean Elgeako lanen jarraipen batzordeak egin zuen bileran ehan zitzairen Elgeako proiektuaren aldaketaren berri.

Kontua da, pasa den abuztuan Eolicas de Euskadi enpresak Elgeako mendilerroan Eskoriatzak dituen lurretan sartzeko baimena eskatu zuela, bertan egin beharreko lanak egin ahal izateko. Eskoriatzako udalak, berriz, lur horien arau subsidiarioak onartu barik zeudela eta onartu arte ez erantzutea erabaki zuen.

Eolicas de Euskadi enpresak ez zuen erabakia onartu eta helegitea aurkeztu zuen Euskal Herriko Epaitegi Gore-



Berrito ere ikamika da nagusi Elgeako zentral eolikoaren inguruan.

nean. Honekin batera, baina, Elgeari buruzko beste proiektu bat ere egin zuen. Honetan Elgeako zentral eolikoa zeharkatuko lukeen bidea Eskoriatzako lurretatik bideratu barik, bi kilometroko aldaketa sartu eta Arabako Barrunditik zuzendu zuen.

Bide berri honek ingurugiroari eragiten dion kaltea, orain arte aurreikusita zegoena baino handiagoa da. Hala ere, dagoeneko proiektu berriak lortu du Jaurlaritzatik, Foru Aldunditik eta Arabako Barrunditik jaso beharreko baimena, baina tokian tokiko

udalekin eta Gipuzkoako eta Arabako Jarraipen Batzordekin ere hitzegin barik. Are gehiago, pasa den astelehenean proiektu berriaren arabera hasi dira lanean.

Bestalde, oraindik Elgeako mendilerroko mugak zehaztu barik daude. Hau da, oraindik ez dago argi non kokatzen diren Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arabako mugak. Eusko Jaurlaritza horretan dabil. Beraz, oraindik ezin da esan Eolicas de Euskadi enpresak egin duen proiektu berriak Arabako lurra zeharkatzen dituela eta

ez Eskoriatzakoak.

Bestalde, pasa den astelehenean istripua izan zen Elgean. Kamioi bat aerosorgailu baterako zulora erori zen. Hori eta bestelakoak ikusita, lanean presaka ari direla salatu du Gipuzkoako Jarraipen Batzordeak, eta hala izango da, izan ere, lanak martxorako bukatuta egotea aurreikusi zuen Eolicas de Euskadi enpresak. Baina lanen martxa ikusita, espero baino dezentegia gehiago atzeratuko da amaiera.

EKOLOGISTAK KEZKATUTA

Gai honekin lotuta, bestalde, datorren asteartean solasaldia antolatu da Monterronen. Zazpitan izango da eta hantxe egongo dira, Añanan egin nahi duten zentral eolikoaren inguruan lanean ari den taldeko ordezkariak alde batetik, eta bestetik, Elgeako zentral eolikoan lanean ari direnen ordezkariak. Solasaldia nahi duenarentzat zabalik dago.

Asteartero Monterronen bitzen den ekologista taldeak antolatu du. Aurretik talde honen aurkezpena egingo da, helburuak jendeari jakinarazteko.

Garbiketa sistema berria jarriko da Garagartzako auto parkean

Udalaren Zerbitzu Sailak akordio bat sinatu du Arrasateko Ur eta Lur enpresarekin, Garagartzako auto garbiketa parkean kutsadura saihesteko neurri berriak ezartzeko, hilaren amaieratik hasita. Ur eta Lurrek olio batzeko materiala eta Udaleko langileen trebakuntza emango du. Udalak 122.000 pezetako aurrekontua dauka.

Lehen ere bazebilen

Udala arazo hau konpontzeko neurriekin, baina garbiketa sistemak 2.000.000 pezetatik gorako gastua zekarren. Gainera, abuztuan ezarri zen edukiontzia ez zen behar bezala erabiltzen, eta aste honetan norbaitek apurtu egin du. Zerbitzu Sailaren buruak, Jose Mari Urizarrek, herritar guztion laguntza eskatu du arazo hauek guztiak saihesteko.

Umezaintza leku bila

Umezaintzako arduradunek Umezaintza handitzeko eskaera egin diote Udalari. Euren asmoa psikomotritziterako gela bat eta libuturagi izango den beste bat egitea da. Izan ere, gaur egun jangela erabiltzen dute psikomotritzitatea lantzeko.

Handitze lanak egiteko, ordea, arau subsidiarioak aldatu behar dira. Izan ere, egungo arau subsidiarioek jasotzen dutenez, San Josepeko gunen horretan ez dago gunen

eraikigarrik. Umezaintzako en asmoa itxita dagoen jolaslekua aprobetxatu eta eraikin zaharraren beste zati bat erabilgarri bihurtzea da.

Joan den asteleheneko gobernu batzordean arau subsidiarioak aldatuko direla aurreikusi zen lanak egin ahal izateko. Gauregun 13 gela daude Umezaintzan eta 202 haurrek erabiltzen dituzte. Jangelari dagokionez, bi jangela dituzte eta 100 haurrek bazkaltzen dute egunero bertan.



TRIKITILARIAK ESKIATZEN

Arrasateko Trikitixa Eskolakoek primeran pasa zuten asteburuan, eskiatzen. Zapatu goizean goiz irten zuten, eta ondoren eskia-

tzen pasa zuten egun guztia, Somporten eta Candanchun. Igandean ere beste horrenbeste, baina batzuk gaupasa eginda.

IZENAK

Iker Barandiaran

arrasatearra, GARA egunkarian hasi da lanean. Egunkari honek estreinatu berri duen tokian-tokiko informazio gunean, Deba bailara izango du hizpide Barandiaranek. Arrasate Pressekoko kolaboratzaile ohia da kazetaria.



Maria Angeles Iñurritegi

Arrasateko Udaleko EAJko zinegotzia, Espainiako hauteskundeetarako aurkeztu da. Madrilgo Kongresurako Gipuzkoako zerrendan bosgarren lekuan doa. Zerrendaburu Joxe Joan Gonzalez de Txabarri izango da.



Foto Bideo Zapping

ZORIONAK, BIKOTE!

Felix eta Blanca Dorletako Amaren elizan ezkondu ziren abenduaren 5ean. Otalora Jauregiaren inguruetan atera zituzten argazkiak. Eta Mexiko aukeratu zuten ezkon bidaian egun ahaztezinak pasatzeko.



ARETXABALETATIK INDIARA

Hona hemen Aretxabaletako HiruItx taldearen lanaren emaitza: 5.100.000 pezetako dirulaguntza Indiako nekazariarentzat eta 38 esne-bufalo gehiago diru kopuru horri esker. Inazio Galdosek eman digu horren berri Indiatik.



ZORIONAK!!

Ainara Kortabarriak eskuratu zuen Joxe Aranzabal dendak ATBren 10. urteurreneko saioan zotz egin zuen mikrokatea.

Saria Mariatxenen eskutik jaso zuen Ainarak.


Zorionak Ainarari ATBren partez eta eskerrik asko gurekin otsailaren 13a ospatzearren.



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCKo leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20




IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Berrikuntzak aurtengo aurrekontuan

2000.ERAKO DIRUAK



Bi hilabeteko atzerapenez, baina azkenean iritsi dira. Ia 4 mila milioiko aurrekontua onartu zuen Arrasateko Uda-

lak osteguneko osoko bilkuran. 3.897.773.282 pta.ko aurrekontua onartu du Udalak 2000. urterako. Iaz baino

%18,2 gehiago. Honetaz gain, Iturbide egoitzaren 222,6 milioiak eta AUKEAri dagozkion 159,9k gehitu behar dira.

Aurrekontuetan aurreikusitakoa betez gero, dirusarreraren 100 pta.tik 37,8 pta udal fiskalitateatik datoz, 41,7 pta diulaguntza arruntetatik edo beste Erakunde batzuek bildutako diru-zergen partizipazioetatik (batez ere Foru Aldundia), 1,2 pta ondare sarreretatik (errentak,

kontzesio administratiboak eta diruzaintzako kudeaketa), 2,5 pta ondarea saltzetik, 10,4 pta kapital dirulaguntzetatik, 0,3 pta beste kontzeptu batzuetatik datoz (pertsonalaren aurrerakinak itzultzea) eta azkenik, 6,1 pta maileguetatik lortu dira.


Aurtengo aurrekontuak iaz baino 600,3 milioi pta gehia-

go izango ditu. Eta igoera gehien izango duen batzordea hirigintza izango da. Aurten, 955 milioi pta.ko aurrekontua dauka (955.173.184 pta), aurrekontu osoaren %24,5. Diru honekin egingo dira Arrasateko erdiguneko lanak (140 milioi), Cerrajerako lurzoru industrialaren erosketa (333 milioi) eta Udala Behekoa

bezalako urbanizazioak (50 milioi). Iaztik igoera gehien izan duen partida da hirigintzari dagokiona, 403 milioi pta gehiago, hain zuzen ere.

Jaitsiera handiena izan duen partida, berriz, kirola eta kulturari dagokiona da. Aurten 536.722.609 pta.ko aurrekontua baldin badu, iaz, 757.467.963 pta.ko izan zuen.

Aurrekontuak milioi pta.tan



SARRERAK (mila milioitan)

Zuzeneko zergak	6
Zeharkako zergak	3
Tasak eta prezioak	5
Transferentzia korronteak	6
Ondare sarrerak	4
Inbertsioak inorenganatzea	1
Kapital transferentziak	4
Finantza aktiboen aldaketa	1
Maileguak	2

Honen arrazoia zera da, Uarkape Udal Pilotalekua egiteko 1999ko aurrekontuan 115 milioi pta aurreikusi zirela. Aurten hiru dira partida honetatik diru gehien jasoko duten egitasmoak: Musakolako kirol instalazioak berritzeko proiektua (75 milioi), ospital zaharra berritu eta liburutegi berria egiteko proiektua (75 milioi) eta Amaia antzokia berritzeko egitasmoa (45 milioi).

Osterantzean, aurrekontuetan jasotzen diren partidak nahiko antzera gelditu dira. Batzuk gorago beste batzuk beherago, antzerako diru kopurua jasoko dute iazko zenbakiekin alderatuz gero.

BATZORDE BERRIAK

Aurtengo aurrekontuek bi batzorde berrientzako dirua aurreikusi dute. Batetik Enplegu eta Garapenerako batzor-

INBERTSIOAK BANAN-BANAN

- Ospital zaharra
- Musika etxea
- Musakolako kiroldegia
- Amaia antzokia
- Erdigunearen urbanizazioa
- Oinezkoen zumardia
- Antoñako saihezbidea
- Erguin auzoa
- Gaztetxea
- Eraikinetako iristagarritasuna



Musakolako Kirol instalazioetan 136 milioi pta. inbertituko dira aurten.

Nola banatuko da dirua? 100 pta bakoitzeko, banaketa hau egingo du Udalak:

668,1	• 18,7	personal gastuetan
300	• 17,5	udal zerbitzuetan
506,5	• 6,3	banketxeekiko
624,8		konpromisoetan
46,3	• 18,2	transferentzia arruntetan edo
100		dirulaguntzetan
403,5	• 37	inbertsio zuzenetan
10	• 2	baterako finantziaketetan
240,7	• 0,3	aurrerapenak

deak, Jose Mari Loitik zuzentzen duenak, 80 milioiko aurrekontua izango du bere egitasmoak garatzeko. Jose Mari Loitik adierazi digunez, 90.000m²ko eskaera dago ekimen berri eta enpresa txiki eta ertainak handitzeko. Bestalde, "emakumeen enpleguari eta gazteen lehenengo enpleguari lehentasuna eman nahi diogu eta horretarako formakuntza bultzatuko dugu".

Bestetik, Ingurugiroak, Joseba Ugalde buru duen batzordeak, 42 milioiko aurrekontua izango du. Ugaldek azaldu digunez "egitasmo asko daukagu, batzuk aipatzearen erretiratuentzako ortuak jartzeari lantzen ari gara, modu honetan euren aisialdian zereginak izango lukete eta Udala-ko Ingurugiro eskolara joaten diren neska-mutikoekin harremanak estutzeko aukera izan-

go dute nekazaritza biologikoa zer den ikas dezaten. Horrez gain, baso berritzea eta Aramaio erreka erreberazioa egingo ditugu".

2000-2003KO INBERTSIOAK

Arrasateko Udalak aurrekontuekin batera 2000tik 2003ra bitartean egingo diren inbertsioen plana ere garatu du. 5.683,7 milioi pta.ko aurrekontua du plan horrek. Ospital zaharreko lanak, erdiguneko urbanizazioa, Musakolako kirolegia, Uribarri-Erguin auzoko urbanizazioa, Musika etxearen proiektua, oinezkoendako pasabideak (Monterron-Zarugalde, kasu) eta Gaztetxeko proiektua aurreikusten dira, besteak beste.

Plan honen lehenengo aldia aurtan hasiko litzateke eta 1.440,6 milioi pta erabiliko dira. Abian dauden proiektuen 500 milioi pta.ko gastua gehitu behar litzateke, beraz, guztira 2.000 milioi inguruko lanak egingo dira, tartean, Olarteko urbanizazioa, oinezkoendako pasabidea eta Antoñako saihebidia. Iaz baino %32,9 gehiago inbertituko da.

Gastu hauen artean Cerrajerako industri lurzorua erosteko 333.423.360 pta erabiliko dira. Babes ofizialeko etxebizitzak egingo dira. Bestalde, UCEM Arrasate lantegia herrian geldituko da lortutako akordioaren arabera eta gero



Uarkape Udal Pilotalekuaren ostean egingo da Gaztetxea ziurrenik.

Markuleteko industrigunera eramango da.

ASPALDIKO ESKAERA

75 milioiko aurrekontua dauka gaztetxearen proiektuak aurtan. Ospital zaharrean dagoen Gaztetxeak etorkizun motza izango zuela aspaldi esan zen arren, oraindik ez da inolako neurririk hartu. Horren aurrean Udalak, eta Gaztetxe berria non egingo den erabakitzeko dagoen arren, seguraski Uarkapeko Udal Pilotalekuaren ostean jarriko da. Lan horiek egiteko, hasiera batean 200 milioi pta behar izango direla uste da eta lanak aurtan eta datorren urtean egin beharko dira. Honekin batera instalazio guztien erabilera zuzenduko duen arautegia ere egingo da, Udala, Gaztetxea, gazte elkarteak eta bestelakoekin elkarlanean.

PARTIDA BEREZIAK

Erretiratuentzako etxebizitzak, garraio publikoa eta kanpamendu nomadentzako dirulaguntzak dira aurrekontuetan jasotzen diren partida berezietako batzuk.

Iaz onartu zen erretiratuentzako etxebizitzak bultzatzeko egitasmoa. Aurtan 3.468.000 pta.ko aurrekontua jasoko du. Bakardadea, isolamendua edo babes pertsonalik ez duten erretiratuek etxebizitza batean bizi izateko aukera izango dute.

Garraio publikoak 9 milioi pta.ko aurrekontua dauka. 2000.eko bigarren seihilekoan martxan jartzea espero da.

Azkenik, eta nomadentzako kanpamenduari dagozkionez, 10 milioi pta jasoko ditu proiektuak. Araututako kanpamendu bat eratzea da helburua, herrira etortzen diren nomadek zaindutako leku bat izan dezaten. ■

Marijo Deogracias.

* Erreportaje hau idatzi zenean oso-ko bilkura egin barik zegoen, beraz aurrekontuek ez zuten behin betiko onarpenik. Dena dela, hazienda batzordean 21 zinegotzietatik 19k alde bozkatu zuten, EH, EAJ-EA, PSOE eta Ezker Batuaren botoekin. Litekeena da beraz, aurrekontuak bere horretan gelditzea.

ptan, 2000-2003):

inbertsioa	Guztira
75	500
5	100
136	1.200
45	90
140	360
50	125
41	41
22	500
75	200
20	140

Oraingoan bai?

Elurrak berriz ere eragozten ez badu, asteartean, otsailaren 22an, Tau Baskonia Iturripera etorriko da. Arrasate Kirol Proiektuak berriro gonbidatu ditu saskibaloiko profesionalak Mondragoeko neska-mutikoak bisitatzera etortzeko.

Baina Gasteizko taldearen entrenamenduaren aurretik AKPko neska-mutikoek euren arteko partidak jokatu dituzte. 16:30ak aldera hasiko dira eta 18:15ak bitartean iraungo



Asteartean etorriko da Tau.

dute. Ondoren Tau Baskoniaren entrenamendua hasiko da.

ASTEBURUAN AUKERAN

Bestalde, asteburu honetan ekintza ugari izango dituzte aukeran AKPko haurrek. Larunbatean esaterako, Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako ikasleak igerilekura joango dira. Igeriketa praktikatzeko jokoan arituko dira eta gainera puzgarriekin jolasteko aukera izango

dute.

Multikiroleko neska-mutikoek amaitu dute dagoeneko areto futboleko txapelketa. Hori dela eta, asteburu honetan minisaskibaloikoari ekingo diote.

Asteburuko hitzorduak Otsailak 19, larunbata

PSIKOMOTRIZITATEA IGERIKETA

Musakola

- 9:45** Musakola
San Viator C
San Viator A
SFX B
- 10:45** La Merced B - SFX U
SFX C - SFX A
San Viator B
- 11:45** Aramaio
SFX (Santa Teresa)
SFX D - Erguin
La Merced A

MULTIKIROLA MINISASKIBALOIA 1. Jardunaldia

- NESKAK**
Jturripe
- 11:00** SFX A - San Viator A
11:45 S. Viator B - La Merced

- MUTILAK**
Jturripe
- 9:30** Erguin - La Merced
10:15 San Viator C - Aramaio
SFX B - SFX A
- 11:00** San Viator A - SFX C
11:45 SFX U - San Viator B

MULTIKIROLA MUTILAK

- San Viator
- 10:00** Lagundia - Arrasate A
10:30 San Viator - Arrasate B

- NESKAK**
Zubikoa
- 11:00** Aozarata 2 - S. Viator

- FUTBOLA**
NESKAK
Atxabalpe
- 09:00** SFX A - Torrebaso
09:00 SFX B - Almen
10:00 San Viator - Aranzadi A
10:00 La Merced - Elgeta

- MUTILAK**
- 10:30** Ipintza DBH - La Merced
10:30 Almen - SFX

Taldez talde 9. jardunaldia

INFANTILAK SASKIBALOIA

MUTILAK Taldea	Puntuak
Aozaraza 2	18
Arrasate B	15
San Viator	15
Txantxiku DBH2B M	15
M. Lagundia B	13
Arrasate A	11
M. Lagundia A	8

NESKAK Taldea	Puntuak
BHI Kurtzeberri	13
San Viator	11
Aozaraza 2	10
Almen	9
M. Lagundia	8

MULTIKIROLA NESKAK Taldea	Puntuak
San Viator B	15
San Viator A	9
SFX A	12
SFX B	8
Erguin	5
La Merced	11



Multikiroleko SFX B taldea.




Aurrekiroleko SFX A taldea.




ARRASATE
KIROLAK



... arnastu zerua





Barrura!

Eta denak begira gelditu ziren. Atezaina saiatu, saiatu zen, baina baloia barrura joan zen. Azken emaitza Timoftról 9 Alai Gozokiak 2.

NORMALTASUNA

Azken asteotan ez bezala, joan den asteburuan ez zen ezer gertatu Zaldibarko txapelketan. Talde guztiek jokatu zituzten jokatu beharreko partidak eta horri esker, antolakuntzak ez du azken orduko erabakirik hartu beharrik izan, hau da, ez du talderik kaleratu behar izan. Hori dela eta, astelehenero egin ohi duten bilera nahiko aspergarria gertatu zen.

ASTEKO GOL ZAPARRADA

Orlando Piratas taldeak sartu zion asteoko gol zaparrada Kobate DKB taldeari. Hamai-ka gol sartu zituzten, baina Kobate ere ez zen geldirik egon, lau gol sartu zizkieten eta, Orlandokoei.

Ez zen gauza bera gertatu Giraldilla Conection taldearekin. Izan ere, zortzi gol jaso, baina bat bera ere sartu barik

joan ziren etxera.

BEDERATZI FALTAN

Bederatzi jardunaldi falta dira lehen aldia bukatzeko eta oraindik ere gauzak nahasi daude. Zortzi talde sailkatzen dira bigarren aldirako eta puntuka nahiko berdinduta daude lehenengo hamabi taldeak.

Talde asko kanpoan dagoen arren, horrek ez du lagundu gauzak argitzen. Horri esker

talde askok puntuak gehitu dituzte eta.

BIGARREN ALDIAN, ZER?

Aurreko urtetan zortziko lau talde egiten ziren arren, aurtentzen lau talde egiteko dira bigarren aldia jokatzeko. Hori dela eta, ez da hirugarren aldirik egongo eta bigarren aldirik talde bakoitzeko lehenengo bi sailkatuak final laurdenetara pasako dira zuzenean.



GRONDO Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



Sailkapenak

Emaitzak

A taldea

Kanpazar harrobia 1 - Irati STS 6
Orlando Pir. 11 - Kobate DKB 4
Goma 2 2 - Betrayer 1
Atxanta el Ret. 1 - Ume Zikinak 3
Etxe Mobil 1 - Fraguel Gol 3
Giraldilla Con. 0 - You Know 8
DA Iristu 2 - Saukelu Scream 2

B taldea

Aurrera Bolie 6 - Branka tabe. 11
Koka Juniors 2 - Leya 5
Makai 1 - Dribling 5
IKP 8 - Sas T 3
Makanudos 2 - Potroak 6
Etixerat 1 - Garaje Oscar 6
Kamasutra 4 - Aldibi 1
Timoftol 9 - Alai Gozokiak 2
AKTA 5 - Txeyenex 2

A taldea	PARTIDAK			GOLAK		PUNT.	
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
K. Alpargat	12	10	2	0	61	36	22
Orlando	12	9	2	1	65	32	20
You Know	11	9	0	2	68	36	18
AT Lokala	12	9	0	3	56	33	18
Irati STS	12	8	0	4	75	47	16
Ume zikinak	12	7	2	3	71	40	16
Kanpazar Harrobia	12	7	2	3	71	40	16
Sau. Scream	12	7	2	3	48	31	16
AC Surkos	12	7	1	4	56	35	15
Kobate DKB	12	7	0	5	65	41	14
DA Iristu	12	6	2	4	50	60	14
Goma 2	12	7	0	5	50	42	14
Betrayer	12	7	0	5	39	39	14
Fraguel Gol	12	6	0	6	52	52	12
Xhasss Ugar.	11	5	1	5	63	49	11
Totem	12	3	0	9	18	34	6
Etxe Mobil	12	2	1	9	36	40	5
Sokoakoak	12	2	1	9	23	45	5
Giraldilla Con.	12	2	0	10	43	115	4
Atxanta el Ret.	12	1	2	9	20	89	4
Bar Nuevo	12	1	0	11	21	87	2
Lontxo Tab.	12	0	0	12	0	12	0

B taldea	PARTIDAK			GOLAK		PUNT.	
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Dribling	12	11	0	1	57	15	22
Timoftol SMD	12	9	2	1	74	29	20
IKP	12	9	1	2	61	36	19
Kamasutra	12	8	1	3	53	30	17
Branka Taberna	12	7	2	3	77	45	16
KJ Basati	12	7	0	5	62	54	14
Etixerat Tab.	12	5	4	3	56	42	14
Serengeti	12	6	2	4	36	39	14
Txeyenex	12	6	1	5	47	56	13
Aldibi	12	6	1	5	44	47	13
Borroco & Roll	12	5	2	5	42	48	12
Potroak	12	4	3	5	39	41	11
Makanudos	12	5	1	6	37	66	11
Garaje Oscar	12	3	4	5	46	43	10
Leya	12	4	2	6	37	42	10
Aurrera Bolie	12	4	2	6	32	49	10
EPEH	12	4	1	7	43	49	9
AKTA	12	4	1	7	32	34	9
Alai Gozokiak	12	3	2	7	38	56	8
KK Jaurilaritzari	12	4	0	8	29	27	8
Sas T	12	1	1	10	30	64	3
Makai	12	0	1	11	40	100	1

ARRASATE  **KIROLAK**
Kontzexino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

Hurrengo partidak / 13. jardunaldia

Iarunbata, 19

Zaldibar

08:50	Kamasutra - Serengeti	Epaillea (Sas T)
10:00	Sas T - Timoftol	(Serengeti)
11:00	Kanpazar harrobia - Irati STS	(Branka)
12:00	Koka Juniors - Leya	(Irati STS)
13:00	Orlando Piratas - Kobate DKB	(Koka Juniors)
14:00	Makai - Dribling	(Kobate DKB)
15:00	IKP - Sas T	(Makai)
16:00	Makanudos - Potroak	(IKP)
17:00	Goma 2 - Betrayer	(Potroak)
18:00	Etixerat - Garaje Oscar	(Betrayer)

Iturripe A

15:50	Atxanta el Retorno - Ume Zikinak	Epaillea (Fraguel Gol)
17:00	Etxe Mobil - Fraguel Gol	(Atxanta)

Iturripe B

15:50	Giraldilla Con. - You Know	Epaillea (Saukelu)
17:00	DA Iristu - Saukelu Scream	(Giraldilla Con.)

igandea, 20

Zaldibar

11:00	Kamasutra - Aldibi	Epaillea (Timoftol)
12:00	Timoftol - Alai Gozokiak	(Kamasutra)
13:00	AKTA - Txeyenex	(Alai Gozokiak)

Atsedena: Komando Alpargat, AT Lokala, Xhasss Ugarte, AC Surkos, Borroco & Roll eta Serengeti

SASKIBALOIA Hamabosgarre- nean, aidanez




Lehen aldiko azken partida jokatu zuen Kenci Arrasatek joan den asteburuan eta bere hamabosgarren garaipena lortu zuen. Donostian izan zen Santo Tomas Lizeoaren aurka eta 68 eta 73 irabazi zuen. Lehen mailara igotzeko aukera guztiak dituzte arrasatearrek orain arteko emaitzak errepikatzen badituzte igoera aldiaren ere. Otsailaren 26an izango dute lehenengo norgehiagoka.

Kadeteek etxean jokatu zuten Bergararen aurka. Etxekoek entrenatzaile barik ekin zioten jokoari eta horrela aritu ziren lehen aldi osoan. Lehen zatian inoiz baino saskiratze

gutxiago izan zen. Bigarrean bi tantu baino gehiagoko alderik ez zen egon. Azkenean Bergarak hobeto aprobeztatu zituen aukerak eta 44 eta 48 irabazi zuen.

ESKUBALOIA Atzera berriz



Arrateko taldea izan zuten aurrez Arrasate Almen taldekoek asteburuan eta talde bisitariak 3. tokian dagoela erakutsi zuen Iturripen. Partida nahiko berdindua egongo zen, baina epailearen erabaki batzuek kalte egin zioten etxekoei, ikusleen artean eztabaida sortuz.

Arrateko taldeak gol ugari kontraerasoan lortu zituen eta alderantziz, Arrasate Alme-

nek defentsa gogorarekin egin zuen topo erasoetan. Honela kanpoko taldeak aldea handitu egin zuen eta minutuek aurrera egin ahala partida irabazteko aukerak gehitu egin zituzten.

Epaileak 2 penalti adierazi zituen etxeko taldearen kontra eta Arrasate Almenek ezin izan zion markagailuari buelta eman. Azken emaitza Arrasate Almenek 26, Arratek 33.

FUTBOLA Goiko postuetan



Erraz irabazi zuen etxeko talde nagusiak larunbatean. Aurkaria Usurbilgo taldea izan zen eta egia esan, ez zuen futbol handirik egin. Lehenengo zatia hasi

orduko Arrasate aurretik jarri zen. Ekainek sartu zuen gola eta hamar minutura Muxik bigarrena sartu zuen. Usurbilgo taldeak, berriz, izan zuen aukeraren bat edo beste, baina Arkaitz atezainak segurtasunez zapuztu zituen Usurbildarren asmoak.

Bigarren zatiak hasiera hotza izan zuen. Etxekoek baloi ugari galdu zuten erdian. Ondoren partidaren kontrola bereganatu zuten eta aukera ugari ostean Arrasateren hirugarren eta azken gola etorri zen. Ez zuen beraz zailtasun handirik izan larunbateko partidak, baina asteburu hone-tan Tolosaldearen kontra jokatu du etxeko taldeak, eta sailkapenari begira, irabazteko partida izango da bi puntuko aldea besterik ez baitago bi taldeen artean.

Emaitzak

ERRUGBIA

- **Seniorrak:**
Arratiako Txekorrak 8 - Arrasate 24
- **Gazte maila:**
Getxo 56 - Arrasate 5
- **Kadeteak:**
Getxo 15 - Arrasate 12

PILOTA

- **Udaberri trofeoa**
- **Lehen urteko kadeteak:**
Arrasate 22 - Eibar 16
- **Bigarren urteko kadeteak:**
Arrasate 22 - Aretxa. 5
- **Seniorrak:**
Arrasate 16 - Aretxa. 22
- **Debarroko txapelketa**
- **Kadete maila:**
Arrasate 22 - Bergara 16
- **Gazte maila:**
Arrasate 14 - Bergara 22
- **Afizionatuak:**
Arrasate 22 - Bergara 17

FUTBOLA

- **1. errejional maila:**
Mondra 3 - Usurbil 0
- **Ohorezko gazteak:**
Pasajes 1 - Mondra 0

- **2. gazteak:**
Baskonia 1 - Arrasate 1
- **Ohorezko kadeteak:**
Arrasate 1 - Hernani 0
- **2. kadeteak:**
Arrasate 4 - Gazteak 2
- **Ohorezko infantilak:**
Real Union 1 - Arrasate 4
- **Lehen errejionala, neskek:**
Bergara 1 - Arrasate 2

ATLETISMOA

- **Arrateko krosa (Eibar)**
- **3.800 m.tan**
- beteranotan:
- Mari Jose Gil..... 6.
- **5.200 m.tan**
- beteranotan:
- Jabier Mentxaka..... 4.
- Cesar Diez..... 10.

SASKIBALOIA

- **Seniorrak:**
St. Tomas Lizeoa 68 - Kenci Arrasate 73
- **Juniorrak:**
Iraurgi 53 - Kenci Arrasate 52
- **Kadeteak:**
Kenci Arrasate 44 - Bergara 48

Kadeteak neskek:

- Txingudi 63 - Kenci Arrasate 18

Jokatzeoak

PILOTA

- **Udaberri trofeoa**
- **Seniorrak:**
Osinaga Tolosa - Tolosa (ostirala 19:00, Iturripe)

Debarroko txapelketa

- Arrasate - Aloña mendi (asteazkena, Iturripe)

FUTBOLA

- **1. errejional maila:**
Tolosaldea - Mondra
- **Ohorezko gazteak:**
Lengokoak - Mondra
- **2. gazteak:**
Mariaren Bihotza - Arrasate
- **Ohorezko kadeteak:**
Bergara - Arrasate
- **2. kadeteak:**
Ilintxa - Arrasate
- **Ohorezko infantilak:**
Arrasate - S. Herrera (larunbata 12:15)

ESKUBALOIA

- **Gazteak:**
Legazpi 16 - Arrasate 21
- **Kadeteak:**
Arrasate 15 - Almen 27

Lehen errejionala, neskek:

- Mondra - Amaikak bat (igandea 09:45)

SASKIBALOIA

- **Juniorrak:**
ATSS Larrun - Kenci Arrasate
- **Kadeteak:**
Tolosa - Kenci Arrasate
- **Kadete neskek:**
Kenci Arrasate - Almen (larunbata 10:30)

ESKUBALOIA

- **Seniorrak:**
Egialde Autoak - Arrasate Almen (Legazpin)
- **Gazteak:**
Arrasate - Beasainen (igandean, 12:00)
- **Kadeteak:**
Ordizia - Arrasate (igandea, 10:30)

Ulma-Cegasa abian



Asier Atxa eta Ivan Velasco ari dira Ulma-Cegasa taldean.

Larunbatean aurkeztu zen Ulma-Cegasa Txirrindulari taldea. Aurkezpena Oñatiko unibertsitatean izan zen eta laster hasiko den denboraldiari aurre egiteko talde polita eratu dute. Benetan talde gaztea da, izan ere iaz sortu zen Oñatiko Ulma eta Cegasa enpresen babesarekin. Guztira 14 txirrindularik osatzen dute taldea eta hauetatik bost berriak dira.

Denboraldi berriko taldea gaztea den arren, aurtengo helburuak aurreko urtekoak

baino zorrotzagoak dira. Hasieran ahalik eta karrera gehien irabazten ahaleginduko dira eta aurreko urtean baino erraztasun handiagoak izango dituzte, izan ere, Born Jay eta Kaiku taldeak desagerturik, garaipenak lortzeko aukerak areagotu egiten dira. Hauek dira Ulma-Cegasa taldea osatzen duten txirrindulariak: Mikel Aizpurua, Iker Ortiz, Asier Atxa, Imanol Urbietia, Iñaki Goiburu, Iban Theys, Julen Saldias, Ander Agirre, Jon Bikendi, Asier Etxeberria,

Jon Oregi, Markel Irizar eta Eduardo De Miguel. Hamairu horiez gain, hamalauagarrrena arrasatearra dugu: Iban Velasco.

DORLETAKO TXIRRINDULARI ESKOLA

Txirrindulari denboraldia has-tear dagoela argi dago, eta Dorletako Ama txirrindulari elkarteak ere, beste talde askok bezala, aurkezpen ekitaldia iragarri dute.

Otsailaren 19an izango da taldearen aurkezpena eta Dorletako Amari lore eskaintza eginez hasiko da ekitaldia. Ondoren, Mondragon Hotolean ofizialki aurkeztuko da taldea eta azkenik, bertara gerturatuko direnentzat luntxa izango da.

Dorletako Ama elkarteak hogeitabosten bat txirrindulariak osatuko dute eta hainbat babeslek lagunduko dute diruz.

Gazte mailan Fagor enpresa izango da babeslea, kade-teen mailan JMA eta infantiletan Arrasate Kirolak.

Euskal Herriko karate txapelketa

Igandean jokatuko da Euskal Herriko Karate Txapelketa. Bilbon izango da eta Saioa Karate Eskolako lau karateka izango dira han. Mutiletan Erik Martin eta Jorge Sanchez lehiatuko dira, Gipuzkoako txapelketako txapeldun eta azpitxapeldunak. Nesken artean ere, Garbiñe Tera eta Sandra Alvarez joango dira Gipuzkoako txapeldun eta azpitxapeldun izan zirenak. Kumitetan jokatuko dute. 34 karatekak osatzen dute Gipuzkoako selekzioa.

Triala Udalan

Igande goizean jokatuko zen Udalan Gipuzkoako Trial Txapelketako 4. froga puntuagarria. Giro polita izan zen Udalako auzoan eta jende ugari hurbildu zen gazte hauek bizikleta gainean duten abilezia ikustera.

Jubeniletan Benito Ros izan zen lehenengoa; infantil mailan Ruben Zabaletak irabazi zuen eta alebinei dagokienez, Jorge Martin izan zen nagusi. Emakumezkoetan, berriz, Maitane Andueza izan zen garai- le eta Ohiana Urrezola esko- riatzarra bigarren.



Giro ona egon zen Udalan.



Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.

Hilaren bulkaeran irabazleen artean zozketa egingo da zuzenean Mondrasport saioan, sari mundiala etxeratuko.

Aurreko asteko erantzuna: 94. etik jaxten du Astorek Errealia.
Galdere: Goretex-aren poroa, ur tanta baino zenbat aldiz txikiagoa da?

Erantzuna:

Izen-abizenak:

Helbidea: Tel.:

VICTORIANO GALLASTEGI (DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEKO

“Errepideak ikusita, Ar

Bergarako Zubiaurre auzokoa sortzez eta izatez, hirugarren legegintzaldia du Bergarako alkate moduan. Iaz Batzar Nagusietan prokuradore izan zen, eta oraindik ere Uren Partzuegoko presidentea da. Gainera, pasaden ekainetik hona, Debagoieneko Mankomunitateko presidentea da. Orduak behar den moduan desglosatuta heltzen omen da Victoriano lan guztiak betetzera.

— Gure bailararen osasuna ona da?

— Nire ustez bai. Langa-beziari dagokionez, beti ibili gara 5-6 puntu beherago, esaterako. Horrek esan nahi du, ekimen aldetik, industrian eta kudeaketan oso ondo gaudela.

Oraindik ez dugu erabateko enplegurik lortu, baina denbora gutxi barru hori ere lortzea da gure asmoa.

— Hala ere, izango du

beharren bat edo beste...?

— Bai, noski. Azpiegiturak ez dira industriaren garapenaren proportzio berean sortu. Gabezia gogorak daukagu; oso egoera kaskarrean gaude. Gu geu azpiegiturak ari gara bereziki bultzatzen. Orain arte jasotako erantzuna ona izan da.

— Orduan ados zaude bailara hau apurtxo bat albo batera utzita dagoela diotekin?

— Bai, oso ados. Ni neu ere ibili naiz hori erakundetan salatzen. Eskoriatzatik Elgoibarreraino dagoen errepidearen egoera ikusita, esan daiteke Afrikan gaudela. Aldunditik ematen ari diren erantzun ona ikusita, gainera, badirudi, eurak ere konturatu direla.

— Beraz, zein da lantzen ari zareten azpiegitura horien oraingo egoera?


— Nire ustez, garrantzitsuenak Beasain-Durango errepidea eta Eibar-Gasteiz autopista dira. Lehenengoari dagokionez, errepidea egiteko datak aurreratu egin dira eta aurrekontua ere onartuta dago.

Eibar-Gasteiz autopistak, berriz, bere martxan segitzen du. Lehenengo aldia martxan dago eta bigarrena ere adjudikatuta

dago...

AH Tri buruz, ez dugu albiste gehiegirik. Eusko Jaurlaritzaren ardura da. Hala ere, horrelako batean gai hauek lantzeko biltzen garen galdetuko dugu, bai.

— Hala ere, egitasmo hauetariko batzuen aurkako ahotsak ere entzuten dira inguruan, ekologisten aldetik batez ere.



“Argi dago zerbait aldatu behar dela; jendeak etxebizitza gehiagoren beharra ekarriko du”

AKO PRESIDENTEA)

Arikan gaudela dirudi”

— Kontrako ahotsak normalak dira. Guk geuk ere aurkeztu genituen alegazioak Angiozarko bailararekin. Oraindik ez dugu alegazioei buruzko erantzunik jaso, baina ahaleginduko gara mota honetako lanek ahalik eta kalte gutxien eragin dezaten. Derrigorrezkoa da kalteren bat jasatea, baina ahalik eta txikiena izaten saiatuko gara. Garatzea nahi badugu, Europa mailan lehiakorrek izatea, herri hau behar den modukoa izatea eta gure bizimodua kalitatezkoa izatea, derrigorrezkoa dugu honelakoak egitea.

— **Hainbeste aldatetarekin, larregi ez al da eraldatuko bailara urte gutxitan? Ez dago bizilagun gehiegi izateko arriskurik?**

— Oso egitasmo garrantzitsuak garatzen ari dira bailaran; Mondragon Unibertsitatearena, esaterako, oso garrantzitsua da. Horrek jende asko erakarriko du eta sekulako aldaketa eragingo du, bai Mondragoen eta baita inguruko beste herrietan ere. Une honetan hiru puntu daude campus moduan zehaztuta: Eskoriatza, Oñati eta Arrasate, baina derrigorrezkoa izango da

hori beste herrietara ere zabaltzea. Ni horretan lanean ari naiz Bergarara zabaltzeko, adibidez. Eta bai, argi dago zerbait aldatu egin behar dela, derrigorrezkoa da. Jendeak etxebizitza gehiagoren beharra ekarriko du, dendak...

— **Goienaren proiektua aurrera doa Mankomunitatean?**

— Harremanak izan ditugu, baina oraindik ez dira udal bakoitzeko datuak batu. Iku si egin behar da, ea udaletxe bakoitza proiektu honekin identifikatuta dagoen eta ea zer proposatzen duen. Proiek-

tua sakon aztertzea falta zaitzugu. Ideia moduan, ona dela iruditzen zait; esan bezala, nola planifikatzen den ikusi behar da.

— **Debagoienerako guri bat?**

— Bakea, bakea lortu behar da. Bakea lortuz gero, ondorengo guztia erraz etorriko zaitzugu bailarara, ura erre kara doan moduan. Hemen jende langilea dago, ekimen ugariduna eta oso ondo prestatuta dagoena... Horri bakea gehitzen badiozu, hau beste mundu bat litzateke. ■

Gida 2000

ARRASATE
ARETXABALETA
ESKORATZA
LEINTZ GATZAGA

ARNO • ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

Adi egon!

Gida 2000 laster zure
postontzian aurkituko duzu.

Autobus ordutegiak,
egutegia, aurkibide
alfabetikoa...

Ez baduzu jasotzen, deitu 943 71 23 91 telefonora
edo zuzenean ARKOra etorri. Otorala Lizentziatua, 31 • ARRASATE

Marrazki lehiaketa Arrasateko motorzaleek antolatuta

Arrasateko Motorzaleen Elkar-teak marrazki lehiaketa anto-latu du, "San Isidro 2000" motorren kontzentrazioa dela eta. Marrazkiak Din A4 neurriko paper zurian aurkeztu beharko dira, eta zuri beltze-koak izan beharko dute. Era berean, marrazkian nahitaez asto bat eta motor bat agertu beharko dira.

Lehiakideek bi gutunazal itxitan aurkeztu beharko dituzte lanak, batean marrazkia eta bestean egilearen datuak sar-

tuta (izena, helbidea eta tele-fonoa).

AZKEN EGUNA

Lanak aurkezteko epea mar-txoaren 18an bukatuko da eta Arrasateko Motorzaleen Elkar-teak Gipuzkoa Etorbideko 47. zenbakian duen egoitzara era-man beharko dira, arratsalde-ko 19:00etatik 20:00ak bitar-tean.

Epaimahaia elkarteko zuzendariak osatuko dute, eta irabazlearen izena martxo-a-

ren 18an emango da ezagu-tzera. Saria 10.000 pezetakoa izango da eta opari bat ere emango da.

Bestalde, Arrasateko motorzaleek Musakolokajaietan egingo den XI. motorren kontzentrazioan erakutsiko dituzte lehiaketan parte hartu duten marrazkiak.

Kontzentrazioaren ondo-ren, maiatzaren 15etik 21era bitartean, lehiakide guztiak beren lanak jaso ahal izango dituzte.

Gazte Informazio Bulegoaren iazko balantzea

4.169 pertsona joan ziren iaz Arrasateko Gazte Informazio bulegora. Erdia baino gehi-ago emakumezkoak izan ziren, %57'32 eta 1.779 gizona-zkoak, %42'68.


Gazte Informazio Bule-gora jo zuten gehienak langi-leak izan ziren, %45'4. %40'4 ikasleak, eta %14'2, berriz, langabeak. Adinari dagokio-nez Gazte Bulegotik pasata-ko guztien %90'3 30 urtetik beherakoak izan ziren.

Azken egunak

Igandean bukatuko da Mano-lo Quevedok Harresin duen margo erakusketa. 30 lan jarri ditu ikusgai. Gehienak paisajeak dira, baina izadi hilak ere baditu. Arrasatear honen margotzeko trebezia bertatik bertara ikusi nahi duenak asteburu honetan izango du, beraz, azken auke-ra, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.



Peio Gonzalez Toki Ederren



Peioren artelanetako bat.

Peio Gonzalez "Goello"ren margolanak San Andres auzoko Toki Eder kafete-gian daude ikusgai. Peio Goello hernaniarra da eta bere kabuz ikasi zuen marrazten. Taldekako era-kusketa ugari egin ditu: Santillana del Mar herrian, Muskizen, Tuteran, Zarau-tzen... Bakarkako erakus-

ketak, berriz, Donostian, Legazpin, Logroñon, Her-nanin, Ordizian eta Loio-lan egin izan ditu, besteak beste, eta Arrasateko lehe-nen erakusketa du hau. "Beste paisaje horiek" du izena Toki Ederren jarri duen erakusketak, eta otsai-la bukaera arte egongo da ikusgai.

Elkartasun kontzertua

Amnistia, Aratz Gomez eta Iru-nen atxilotutakoen aldeko kontzertua antolatu du Amnistia-ren aldeko batzordeak Arrasateko Gaztetxean. Kontzer-tua otsailaren 26an izango da

eta *Kañeria 13, Des-Kontrol, Ekon, Brutal Melody* eta *Iskan-bila* taldeek joko dute. Sarre-ra 600 pezetan izango da sal-gai eta irabaziak presoek lagun-tzeko bideratuko dira.

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritizatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

NUMEN (MUSIKA TALDEA)

“Kantuen letrak nahiko mistikoak dira”

Jabi Gutierrez eta Unai Osinaga gitarrajoleek, Lander Olazabalaga baxuak, Aimar Etxeberria teklatuak, Josu Arabaolaza bateriak eta Nabarro abeslariak osatzen dute Numen taldea. Orainsu grabatu dute lehenengo maketa, “Haize sorginduen intziarik”.

— Zer esan nahi du “Numen” hitzak?

— Jainko eta jeinu paganoak dira numenak, kristautasunaren garaia baino lehenago Euskal Herriko jainkoak. Kantuen letrak euskal mitologiaren ingurukoak dira eta horregatik jarri diogu taldeari izen hori. Maketan, berriz, bost abesti jaso ditugu. Hasierako intro musikala, hiru abesti eta Benito Lertxundiren “Beotibar” abestiaren bertsio bat.

— Zertaz dira kantuok?

— Landerrek egin ditu letra guztiak. Euskal Herriko ohitura zaharrei eta euskal mitologiari buruzko liburu ugari irakurtzen du, eta baita alegiak ere. Maketako “Ehiztari beltza” kantua, adibidez, alegia bat da. Letra guztiek dute mistizismo puntu bat.

— Nola joan da grabaketa?

— Arrasateko Shot estudioan egin dugu. Bi egunetan grabatu eta hirugarrenean nahasketak egin ditugu.

— Noiz eta non jarriko da salgai?

— Gure musika estiloko fanzine eta zigiluetan. Arrasaten lagunen artean salduko dugu. Izan ere, gure musika estiloa nahiko itxia da, jendeak ez du musika mota hori entzuteko joera handirik.

— Hasi zinetenetik hona, ikusi



duzue eboluziorik?

— Bi urtean izugarri aldatu da gure estiloa. Oraindik, gainera, gure bidea aurkitzen ari gara. Orain gehien bat black death melodikoa egiten dugula esan daiteke, nahiz eta beste influentzia batzuk ere baditugun.

— Non egiten dituzue entseguak?

— Deposituetan entsaiatzen dugu. Lokalak nahiko gaizki daude. Hezetasun handia dute, eta nahiko baldintza eskasetan gaude. Horrez gain, gela bera talde bat baino gehiagok erabiltzen du, eta txandak egin beharra dago.

— Etorkizunerako zein asmo duzue?

— Maketa kaleratzean kontzertuak jotzen hasteko asmoa dugu. Orain arte Arrasateko eta inguruko gaztetxeetan, Lau Biden, Bergarako Jam aretoan eta Donostian jo dugu.

aste gazte

■ DIRULAGUNTZAK

- Eusko Jaurlaritzaren nekezarritza eta arrantzako ikerketak egiteko bekak. Epea: martxoak 8.
- “La Caixa”ren eskutik, Frantzia, Britainia Handia, Alemania, EEBB, Kanada edo Japonian graduosteko ikasketak egiteko dirulaguntzak. Hainbat epe.

■ LANA

- Nafarroako Komunitaterako, laboratoriko teknikari espezialista, bide, ubide eta portueta-ko ingeniaria eta zerbitzu ogasuneko teknikaria behar dira. Epea: otsailak 23.

- Irunerako kirol aktibitate eta instalazioetarako zuzendaria behar da. Epea: otsailak 25.

- Zuiako Udalak enpresa eta aktibitate turistikoetarako teknikaria behar du. Epea: otsailak 2.

- Nafarroako komunitaterako, koordinazioko operadore laguntzailea, fisioterapeuta eta enpresa zientzietako diplomatua behar dira. Epea: martxoak 1.

- Gipuzkoako Diputaziorako suhiltzaileak behar dira. Epea: EAOean argitaratzeko zain gertzen dira.

■ IKASTAROKAK

- Karibeko Dantzak: Julio Lantigua dominikarraren eskutik, otsailaren 28tik Musakolako Gazte Txokoa. Matrikula 4.000 pta eta 2.500 pta ikasle eta langabe-tuentzat.

- Euskal Dantzak: martxoaren 3an hasi eta San Joanak arte. Ostiraletan, 7etatik 8:30etara, Lore Gazteak taldearen lokalean. Matrikula 1.000 pezeta.

- Hastapena eta segurtasuna goi mendian, Gipuzkoako Goi Mendi Eskolaren eskutik. Ikastaroa Tena bailaran egingo da, martxoan. Epea: martxoak 1.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

“Deposituetan oso baldintza eskasetan daude”

ATB

Programazioa

OSTIRALA, 18

- 13:30 Albiste aurrerapena
- 13:35 Gatza eta Berakatzak.
Mari Karmen Telleria
Oñatiko Garoa Jatetxeko
sukaldariak prestaturiko
platera.
- 13:45 Zortziko Txikian
(errepika).



Anartz Agirre.

- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Astebete. Maider Osaren
eskutik asteari errepasoa
egingo diogu.
- 22:00 Gatza eta Berakatzak
(errepika).
- 22:10 ATBk 10 urte. 10 urte 10
ordutan (errepika).

LARUNBATA 19

- 13:30 Asteko programen
errepika: Hamaika
Magazin, Aurrez Aurre,
Soinuz Blai eta Astebete.

IGANDEA 20

- 13:30 Asteko programen
errepika: Hamaika
Magazin, Aurrez Aurre,
Soinuz Blai eta Astebete.

ASTELEHENA, 21

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatzak.
Mari Karmen Telleria
Oñatiko Garoa Jatetxeko
sukaldariak prestaturiko
plater bat.
- 13:45 Astebete (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Mondrasport. Itxaro
Zubillaga eta Xabier
Urzelairen eskutik,
asteburuko kirol
emaitzak jakingo ditugu.
- 22:00 Gatza eta Berakatzak
(errepika).
- 22:10 ATBk 10 urte. 10 urte 10
ordutan (errepika).

ASTEARTEA, 22

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatzak.
Mari Karmen Telleria
Oñatiko Garoa Jatetxeko
sukaldariak prestaturiko
platera.
- 13:45 Mondrasport (errepika).
- 19:20 Jolasplast. Mikel
Lizarralde aurkeztutako
haurren lehiaketa.
- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Hamaika Magazin.
Arantzazu Lagunillak
aurkeztuta, osasunaz,

sexualitateaz, bidaiez,
arteaz eta beste hainbat
konturi buruz jakiteko
aukera izango da.



Arantzazu Lagunilla.

- 22:00 Gatza eta Berakatzak
(errepika).
- 22:10 ATBk 10 urte. 10 urte 10
ordutan (errepika).

ASTEAZKENA, 23

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatzak.
Mari Karmen Telleria
Oñatiko Garoa Jatetxeko
sukaldariak prestaturiko
plater bat.
- 13:45 Hamaika Magazin.
Arantzazu Lagunillak
aurkeztuta, osasuna,
sexualitatea, horoskopoa
eta beste hainbat kontu
jakiteko aukera izango da
(errepika).
- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Aurrez Aurre. Edurne

Mujikaren eskutik
arrasatear interesgarrien
baten bizimodua
ezagutzeko aukera izango
dugu.

- 22:00 Gatza eta Berakatzak
(errepika).
- 22:10 ATBk 10 urte. 10 urte 10
ordutan (errepika).

OSTEGUNA, 24

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatzak.
Mari Karmen Telleria
Oñatiko Garoa Jatetxeko
sukaldariak prestaturiko
plater bat.
- 13:45 Aurrez Aurre (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Ekilan. Alberto Gorritibe-
reak aurkeztutako
programa.
- 22:00 Gatza eta Berakatzak
(errepika).
- 22:10 ATBk 10 urte. 10 urte 10
ordutan (errepika).

OSTIRALA, 25

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatzak.
Mari Karmen Telleria
Oñatiko Garoa Jatetxeko
sukaldariak prestaturiko
plater bat.
- 13:45 Ekilan (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Astebete. Maider Osaren
eskutik asteko albisteen
errepasoa.
- 22:00 Gatza eta Berakatzak
(errepika).
- 22:10 ATBk 10 urte. 10 urte 10
ordutan (errepika).

Gatza eta Berakatzak

Sukaldaria: Mari Karmen Telleria (Garoa jatetxea) Oñati.

NOIZ	PLATERA
Astelehena 21	Entsalada epela.
Astearte 22	Penka beteak.
Asteazkena 23	Txerri solomilloa perretxikoekin.
Osteguna 24	Almejak.
Ostirala 25	Gatza eta intxaur flana.

ATBk 10 urte bete zituen



Egurdian hasi zen jaia,



pintxoen ondoren, noski!



R. Mondragon eta J. Sarasua.



Soinuz Blai ibili ziren, Miren, Iban,



Lierni, Kaitin



eta Iñaki, besteak beste.



Magazinak Naiararen kontu,



eta jaiak Maiarren kontura.



Eguraldi gizona elegante.



Unai eta Said, aspaldiko partez.



Umeak nagusi.



Eider eta Juanitoren jai berezia.



Maidar eta Aintzane elkarrekin.



ETB ere etorri zen.



Eta dena teknikariei esker.



Zorionak ATB.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- Etxebizitza salgai Aretxabaletan, 100 m² eraikiak, 85 m² erabilgarriak, ganbara ere badauka. Gas naturala. Tel.: 943 77 18 33 edo 943 77 11 76.

- Etxebizitza salgai Zigorrolan. 45 m², 3 logela, sukaldaria, bainugela, egongela. Kanpoaldera begira eta altzariekin. Tel.: 943 77 14 40.

3. Errentan emateko

- Gela bat alokagai, Arrasate erdialdean. Tel.: 943 79 87 59. Teresa.

- Logela alokagai Erguin auzoan. Tel.: 943 79 35 93. 18:00etatik aurrera.

- Torreviejan guztiz hornitutako lantalda alokagai. Hondartzatik gertu. Uztailen 2. hamabostaldi eta abuztuko lehenengoa. Tel.: 943 78 14 72.

- Logela bat alokatzen da, etxebizitza konpartitu batean. Tel.: 943 79 23 96.

- San Andres auzoan emakume langile edo ikasle batentzat gela alokatzen da. Tel.: 943 79 15 96. Bittor.

4. Errentan hartzeko

- Etxebizitza konpartitu batean, gela bat beharko nuke. Tel.: 943 79 68 00.

- Baqueira aldean ostatu hartu nahiko nuke. Tel.: 943 79 57 31.

- Etxebizitza alokatu nahiko genuke, 3-4 lagunentzat. Tel.: 943 77 03 36.

5. Etxeak osatzeko

- Pertsona bat behar da otsailetik aurrera bi gelako etxebizitza bat osatzeko, San Andres auzoan. Tel.: 943 83 36 57.

- Logela bat dut alokagai etxebizitza batean. Tel.: 617 72 47 83.

- Pertsona bat behar da langileen etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 15 67.

- Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Langileak bada hobe. Tel.: 943 77 03 36. Ainhoa.

GARAJEAK

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineako dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

7. Saldu

- Garajea salgai, Jose Luis Inarria pasealekuko 18an, Altamiran. Tel.: 943 79 23 27. 14:00 - 17:00 eta 20:00etatik aurrera.

- Garajea salgai Kontzeziño kalean, 17 m²koa. Tel.: 943 79 46 88. 19:00 - 21:00.

9. Errentan emateko

- Garajea alokatzen da Uarkape kalean. Tel.: 943 79 84 35.

- Bi garaje itxi alokatzen dira Arima zuri plazan, bietako bat bikoitza. Tel.: 656 75 91 98.

- Erdialdean dagoen garaje itxia alokagai. Tel.: 943 79 01 84. Edurne.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

- Akademia batek eskola partikularren emateko ikasgela alokatzen du. Tel.: 943 79 18 70.

- Prentsa saltzen duen denda salgai edo alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 77 19 20.

- Taberna salgai Arrasaten, guztiz jarria. Tel.: 943 77 07 80 / 608 73 86 73.

- Taberna salgai Arrasaten, Udalpe kalea, 6. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 43 77.

14. Errentan emateko

- Prentsa saltzen duen denda salgai edo alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 77 19 20.

- Taberna alokagai, Larrea enparantzan. Tel.: 943 79 38 04.

- Ile apaindegi bezala dagoen logela alokagai, ile apaindegi edo nahi denerako. Tel.: 943 79 54 69.

- Taberna alokagai Arrasaten, Udalpe kalea, 6. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 43 77.

LANA

17. Eskaintza

- Ile apaintzaile tituluak lan egiteko prest. Tel.: 943 79 53 57. Maider.

- Neska umeak zaintzeko prest, arratsaldetan. Tel.: 943 71 53 74.

- Era guztietako lanak eta apunteak ordenadorez pasatzen ditut. Aukera zabala: letra eta tamaina gustukoena, marrazkiak, grafikoak, etab. Tel.: 646 09 53 38.

- Neska asteburuetan tabernari lanak egiteko prest. Tel.: 943 79 42 54.

18. Eskaerak

- Emakumea behar dut neskatila bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 29 19.

- Zerbitzari euskalduna behar da jate-txe batean astebukaeretan lan egiteko. Tel.: 945 44 50 86. Maider.

- Neska bat behar dut asteburuetan zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 943 76 22 68.

- Zerbitzari bat behar dut tabernari lan egiteko. Tel.: 943 79 58 50.

- Zapata konponketan ikasi nahi duen neska-mutila behar da. Tel.: 943 76 22 27. Aitor

- Emakume bat behar da ume bat zaintzeko Oñatin. Tel.: 943 78 05 96. Gaeuz deitu.

- Pertsona bat behar da bi haur zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 28 50.

- Jatetxe baterako sukaldaria behar da. Tel.: 943 79 92 58.

- Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko emakumea behar da. Tel.: 943 77 06 56.

- Oxford-en (Ingalaterra) senar-emazte espainolek neska behar dute bi seme-alaba zaintzeko. Soldada, lana lutzeko aukera eta ingelesa ikasteko denbora eskaintzen da. Tel.: 945 25 31 12.

- Arrasaten kokatutako Informatika enpresak, informatikan diplomata edo lizentziatua behar du, C ezagupenak. Harremanetarako: 943 71 20 99.

- Ortuari lan egiteko gizon bat behar da. Baldintzak negoziagarri. Tel.: 943 79 10 95.

- Neska euskalduna behar da arratsaldean denda batean lan egiteko. Bidali datuak 258 posta kutxatilara.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- Esperientzia eta EGA titulua duen lizentziatua Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskola partikularren ematen ditu, euskaraz nahiz gazte-

laniaz. Tel.: 943 79 83 46.

- Ingeles filologia ikasten ari den mutilak, ingelesezko eskola partikularrak emango lituzke Mondragoan edo Eskoriatzan. Tel.: 943 71 47 85.

- Ingelesezko eskola partikularrak ematen ditut, maila guztiak. Tel.: 943 77 08 69.

21. Eskaerak

- Logseko 2. mailako matematikako eta fisikako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 79 69.

- Ingelesez hitz egiteko mintzalaguna nahi dut. Orubete edo pare bat ordu astean. Trukean euskara erakutsiko nioke. Tel.: 943 79 82 66.

- Logseko 2. mailako fisikako eskola partikularrak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 55 60. Arratsaldez.

- "Gestio Kontabilitateko" eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 96 15. Gauzez deitu.

- Enpresa zientzietako 2. ikasturteko matematikako eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 71 52. Isa. Bulego orduetan deitu.

MOTORRA

23. Saldu

- Vespino motorra salgai, gutxi erabilia. 50.000 pta. Tel.: 619 65 40 69.

- Trialerako motorra salgai. Gas gas 215. 92. urtekoa. Tel.: 943 79 78 36.

- Motorra salgai. Rieju RR, hori kolorekoa. Ondo prestatua. Tel.: 606 13 50 32. Gorka.

- Renault 5 salgai. SS-T matrikula, egoera onean eta IATA pasatu berria. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 11 99.

- Opel Astra 14i-GT. IAT Abenduan pasata. 10 CD sartzeko musika ekioparekin. Prezio onean. Tel.: 943 79 75 02 / 606 00 30 16.

- Opel Kadetta salgai GSI 16 balbula. Ondo zaindua. Tel.: 943 79 75 11.

DENETARIK

26. Saldu

- SWR Twelve Bass Combo Celestine marka duen 100 W-dun aplikadore eta Ibanez baxu elektrikoa bere kutxatilarekin batera, salgai. Ondo zainduta eta egoera onean. Tel.: 943 79 94 49. Oskar.

- Bulegorako altzariak salgai. Tel.: 943 79 84 35.

- Umeentzako kotxetxoak salgai. Prezio onean. Tel.: 943 79 71 52. Isa. Bulego orduetan deitu.

- Bigarren eskuko Pignini 100 akordeoia salgai. 120ko bajua. Tel.: 945 40 33 63.

- Fondoko eskiak salgai, ekipo guztia, neurria 42, bi aldiz besterik ez ditut erabili. Tel.: 943 79 88 83. Mikel.

- Teknografo (marrazki taula) pare bat salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 11 80.

- Bigarren eskuko Pignini markako

- akordeoia salgai. Tel.: 943 79 13 88. Amaia.

- Playstation berria, erabili gabea, salgai. Dual Shock. Bijoko. Tel.: 943 79 65 80. 17:30-20:30.

- Natural hazitako bildots eta txahal labeldunak izozkailuan sartzeko salgai. Tel.: 689 54 18 61.

- Whipit piragua salgai, arrauna, bainuestalkia, eta bi puxika. 130.000 pta. Tel.: 943 79 78 36.

- Marrazteko mahaia, "Lester" marka alemaniarra, salgai. Berri berria da. 15.000 pta. Tel.: 943 79 25 10.

- Cocker txakurrak salgai. Tel.: 696 05 73 46.

- Soinu txikia salgai. Berria, zero-sette. Solen afinatua. 190.000 pta. Tel.: 945 27 44 26.

- Solarium APRO markakoa salgai, egoera onean. Tel.: 943 76 51 76. Leire.

- Emakumezkoen mendiko bizikleta, berri-berria salgai. 3 plater eta 6 pinoi. BH markakoa. Tel.: 943 79 96 37.

27. Erosi

- Txanpon zaharrak erosiko nituzke. Tel.: 639 82 27 90.

- LP diskak erosten ditut. Tel.: 943 79 76 90.

- Mundu guztiko txanponak erosi, saldu edo aldatuko nituzke. Tel.: 943 79 54 55. Mikel. 20:00etatik aurrera.

- Diskoak, singelak eta LPak eros-

- ten ditut. Tel.: 943 52 65 77. Jose Luis.

31. Galdu

- Jokin Zaitegi plazan bi giltza-sortagaldutuen. Sobre baten barruan zeuden. Aurkitu dituenak, mesedez, telefono honetara deitu dezala: 943 75 22 74. Arratsaldez.

- Plumifero urdin bat galdu dut azoka inguruan. Tel. 943 77 04 21.

- San Andres inguruan montura marroia eta aumento handiko betaurrekoak galdu nituen, orain dela 15 bat egun. Tel.: 943 79 45 16.

- Zenbait bitxi zintzilik duen urrezko kataia galdu nuen urtarreleko azken egunetan. Aurkitzen duenak ordain saria jasoko du. Tel.: 639 65 34 85.

- Otsailaren 15ean, asteartez, aterki tolesgarri berdea galdu zitzaidan. Vogue markakoa. Tel.: 943 79 84 09.

32. Aurkitu

- Urrezko katea dominarekin, lñaki eta data jartzen duena, Udaltzaingoan dago jasota.

- Ford auto baten giltza aurkitu dut. "Reparaciones Leniz" jartzen du giltzatak. Tel.: 943 77 03 69.

- Arrasate Pasealekuko "Bolintxo" okindegiaren inguruan, montura metalikoa eta koloreko kristalak dituzten betaurrekoak aurkitu nituen orain dela aste batzuk. Tel.: 943 79 47 56.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



L 940ko hamarkadan honako itxura hau zuen Zarugalde kaleak. Iru-diko etxe hau, Concón Etxea da. Marino Bas-cosen antzinako bodega. Alcan-dre zuen izena tabernak. Arro-goiren ondoan zegoen, Zarugal-de atzetik San Kristobalera igotzeko dagoen bideskaren ondoan, hain zuzen ere. Orain taberna bat dago toki horretan.

Concón Etxean, Aita Vicente izeneko merzedarioa bizi zen. Asko maite zuten herritarrek, neska-mutikoei esaterako, goxokiak botatzen zizkien.

Fraide horrez gain, baina, esan beharra dago etxe horretan Arrasaten eta inguruan oso ezaguna den beste pertsona bat ere bizi izan dela: Obdulia Ansuategi sukaldaria. Inguruotako sukaldari asko eta asko jaio dira bere eskuetatik.

Tabernaren ondoan dagoen etxea pasa den abuztuan bota zuten eta, orain beste bat egiteko lanean dabilza.

*Argazkia eta
berriemailea:
Ion Iñaki Yarza.*



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Segurtatu hobeto zure autoa
Segurtasun osoz



 **MAPFRE**

Zure bizitza kalitatea segurtatzen dugu

Garibai Etorbidea, 16 • Tel.: 943 79 89 00 / 943 79 67 22 • Arrasate Pasealekua, 37 • Tel.: 943 79 71 31 / 943 77 03 04

Kalitateak mugarik ez



ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabilioia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE



Zeramika, arte unibertsala



OMU
ZERAMIKAK

Orain erakustoki berria, Ignacio Zuloaga



Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6
Tel./Faxa: 943 79 14 28 • Arrasate

Erakusketa: Ignacio Zuloaga, 4
Tel.: 943 79 07 20 • Arrasate